



San Nikolas
Seguran

Kilometroak
2001-en
aurkezpena

Mikel Antia
Errealeko
jokalaria

2001. urteko
egutegia

Ormaiztegi jaietan



VAC
VAC



BERTAN_{S.L.}
EGUR BILTEGIA

VACSOL - WRR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Ibai-Ondo industrialdea, 5 pab. 18 area



ITSASONDO

PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA

Tel. /Faxa: 943 163 102



Badakizu
lo egiten...

eta
amesten?



23.000pta.tik
285.000pta.rainoko
aurrezpena

Oheak eta
osagaiak
Zorro nordikoak
Burukoak
Izarak
Koltxoi-estalkiak
Alfonbrak
Kutxinak
Gortinak
Besaulki mantak
Luma edo fibrazko
nordikoak

-%20

...eta egizu lo lasai

Ametsen



SWISSFLEX®

nagusia, 40 Beasain Tel/Fax: 943 88 68 51

2.000KO IRAILAREN 29TIK, ABENDUAREN 1.6RA BALJODUNA, AKATS TIPOGRAFIKOA IZAN EZIK

* %20KO BEHEBAPENA. SF2 SERIEKO SF135-TIK SF18SR-RA, ETA SF3 SERIEKO SF535-TIK SF-595-RE BIATXIKOTAN EGINGO DA SOILIK, KOLT-XOIEK EZ DUTE BEHEBAPENIK.

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

Non zer

- 7 TXANDAKA:** Jesus Mari Mendizabal
- 8 KATE MOTZEAN:** Kontxi Simon
- 9** San Nikolas eskea Seguran
- 10-11:** Kilometroak 2001
- 12-13:** Ormaiztegiko jaiak
- 14:** Argazki erakusketa Ormaiztegin
- 15-23 KRONIKAK**
ORMAIZTEGI 15,
GAINTZA 16,
IDIAZABAL 16,
ZALDIBIA 17,
SEGURA 18:
ATAUN 19,
LAZKAO 20,
BEASAIN 21,
GABIRIA 22,
MUTILOA 22,
ZEGAMA 23,
ZERAIN 23,
ORDIZIA.
- 24-25: KIROLA:** Mikel Antia futbolaria
- 26-27: AGENDA**
- 28: DEBALDEKO IRAGARKIAK**
- 29: ZAHARRAK BERRI:** Ormaiztegiko eskolak.
- 30: FOTO ZAHARRA:** ormaiztegiarrak.

Goiart 2000-Ordizia saria antolatu du Ordiziako Udalak

Ordiziako Udaleko Kultura Sailak arte plastikoen Goiart 2000-Ordizia saria antolatu du, arte plastikoak sustatu eta zabaldu nahian. Erosketa modalitatean izango da. Hau da, Ordiziako Udalak 500.000 pezeta gastatzeko prest dago, Goierriko artistek artelanak erosiz. Lehiaketarako oinarriak kaleratu dira eta abenduaren 16an bukatzen da lanak aurkezteko epea.

Goierriko herrietan jaio eta bizi den artistek har dezake parte lehiaketan. Egile bakoitzeko, gehienez, bi lan onartuko dira. Gainerakoan ez dago inolako baldintzarik, ez tamaina, teknika, aurkezpen, gaia...eta abarri dago-kionean. Muntatzeko jarribide bereziak behar izanez gero, lanarekin batera bidali beharko dira.

Arte plastikoekin zerikusia duten adituek osatuko dute epaimahaia eta epaimahaiak berak proposatutako lanak erosteko 500.000 pezeta jarriko ditu Udalak. Lan bat edo gehiago izan daitezke aukeratuak. Saririk eman gabe ere geldi daiteke. Saritutako lana edo lanak Ordiziako Udalarenak izango dira. Bestalde, saritutako artistaren edo Epaimahaiak aukeratutako artisten erakusketa antola dezake Kultura Sailak, Barrena Kultur etxearen eskutik, zehaztu gabe dagoen garaian. Emandako sariak direla eta, ez da diziplina artistikoen zatiketak egingo.

Lanak abenduaren 16a baino lehen aurkeztu behar dira Ordiziako Barrena Kultur etxean (Nikolas Lekuona plaza), goizeko 10etatik letara. Harremanetarako telefonoa, 943 80 56 30.



Lanarekin batera kartazal itxia ekarri beharko da, Nortasun Agiriaren kopia, artistaren datuak eta curriculum, lanen prezioa eta argazkiak, Goierri-ekin duen zerikusia egiaztatzen duten agiriak, eta norbera eta lanari buruzko argibideak (curriculum, ibilbidea, memoria, etab...) azalduz. Kartazalaren kanpoan egilearen izena jarri beharko da.

Lana bidali eta itzultzeko garraio-asegurua eta gastuak partehartzaile bakoitzak ordaindu beharko ditu. Lehiaketara ekarritako lanek izan ditzaketen kalte edo galerak ez dira antolatzaileen erantzukizuna izango.

Berriz ere lanak eramateko 2001eko urtarrilaren 31n amaituko da. Behin lanak eramateko epea igarotzen denean, Barrena Kultur etxean dauden obrak Ordiziako Udalarenak izango dira.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, Jesus Mari Mendizabal, Andoni Sarriegi, Igor Sarriegi. **Azaleko argazkia:** Aitziber Murua.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.000 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria

Juan Sukia lan istripuan hila

Azaroaren 7an, Elgetan izandako lan istripuan hil zen Juan Sukia zaldibiarra. 64 urte zituen.

Etxegarateko bikoizketa lanak atzeratuta

Orografiagatik eta bitarteko ezagatik, Etxegarate bikoizteko lanak atzeratzen ari dira. 2001eko uztaierako lanak bukatuta egongo zirela esan zen lanak hasterakoan. Atzerapenak direla eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, lanak 2001. urtearen amaierarako bukatzea aurrikusten du.

Ikaztegietauko auzia

Urriaren 29an zinpekoen epaimahaiak Ikaztegietauko auziaren gainean esandakoa berretsi zuen azaroaren 6an Juan Piqueras epaileak. Hau da, Izaskun Larrauri Ikaztegietauko gasolindegiko langile legorretarra ustez hil zuten hiru akusatuak errugabeak direla. Larrauri hil izana frogatzen zuten arrastorik ez dagoela argudiatu zuen.

Enpresa berriak sortzeko Txekin programa jarri du martxan Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Departamentuaren ekimenez 'Txekin' programa jarri da martxan, enpresa berria sortu nahi dutenentzat. Negozio egitasmo berriei aurrera egiteko erraztasunak eman nahi ditu, ekimen berriak dituzten pertsonen behar duten aholkularitza eskainiz, beren proiektuak zehaztu eta egituratzeko, eta enpresa berri bat sortzeko duten asmoa gauzatzeko.

Enpresa proiektuaren aldaera nagusiak, arriskuak eta abar aztertzeke, eta enpresa abian jarri aurretik beharko den finantzaketa aurkitzea erraztuko duen negozio plan egituratua osatzeko, profesionalen laguntza izango da. Horretarako hainbat enpresa aditu homologatu ditu Foru Aldundiak, txeeen bidez arlo ezberdinetako laguntza eskainiko dutenak. Goierrin bi enpresa homologatu ditu Foru Aldundiak programa honetarako: Gertu Aholkularitza Beasainen eta Goierriko Ekimena S.A. Ordizian (Goieki). Beraz, enpresa berria sortu nahi duenak homo-



Beasaingo Gertu Aholkularitza homologatu du Diputazioak Txekin programarako

logaturiko erakunde edo pertsonak aukeratu beharko ditu.

Proiektuaren bideragarritasuna eta egokitasuna aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Departamentuak 25 txee heleraziko ditu eskatzailearen helbidera, aholkularitza zerbitzua erabiltzen den heinean horiekin ordain dezaten. Zerbitzu horien helburua proiektua aztertuko duen negozio plana osatzea izango da, batetik, kanpoko finantzaketa behar denean aurkezteko baliagarri izan dadin eta, bestetik, dauden enpresa mota ezberdinak ezaugu eta horietako bakoitzak

dituen lotura pertsonal eta fiskalen berri izateko.

Behin enpresa martxan jarrita ere, lehenengo bederatzi hilabetetan, hainbat profesionalen laguntza jasotzeko aukera izango da, arazo eta zailantzei irtenbideak aurkitzeko. Gehienez 50 txee eskuratzeko aukera egongo da. Horiek eskatzeko prozedura eta behar duzun informazio guztia web orriaren bidez lortuko da. Txee berri horiekin negozio plana zehazten lagundu duten pertsonen zerbitzua edo enpresen kudeaketako arlo jakinetan adituak diren beste batzuen zerbitzua jaso daiteke.

Arkupe

tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Maindreak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

943 88 00 84

ORDIZIA

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 943 88 35 81
BEASAIN

✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

gizarte-ekintza
obra social

'Osasun zerbitzuetan ere euskaraz' manifestazioa deitu du EHEk

Goierriko EHEk (Euskal Herrian Euskaraz) manifestazioa antolatu du gaurkorako, azaroak 24, iluntzeko 8etan, Beasaingo Zubimuzu plaza-tik abiatuta, osasun zerbitzuetan euskararen eskubideak ukatzen direla salatu eta osasun zerbitzu euskalduna eskatzeko. "Goierritarroi, Ordizia eta Beasaingo anbulatorioetan gure hizkuntza eskubideak ukatzen dizkigute. Egoera honen aurrean EHEkook garbi daukagu ezin garela isilik egon eta gure hizkuntza eskubideen defentsa egiteko garaia dela deritzogu".

EHEk Euskal Herri osorako euskararen ofizialtasuna eskatzen du. "Oraindik ezin dugu esan euskara erabat hizkuntza ofiziala denik. Lurralde zatiketaren ondorioz, euskarak bost legedi ezberdin ditu: Nafarroako 'zonalde ez euskaldunean' eta Ipar Euskal Herri osoan euskara ez da ofiziala. Nafarroako 'zonalde mixtoan' euskaldunak eskubide mugatuak ditugu. EAEn eta Nafarroako 'zonalde euskaldunean' berriz, euskara hizkuntza "ofiziala" da, baina, askotan euskaldunok ezin dugu euskaraz bizi", zehaztu du



EHEk. "Ofizialtasun ezak, euskaldunak euskaraz bizi ahal izateko eskubideak ukatzen dizkigu bai ikastetxeetan, epaitegietan, anbulatorioetan... Euskal Herriak euskaldun izateko eskubide osoa du, baina gaur egungo egoera oztopoak besterik ez dizkio jartzen. Egoera hau aldatzeko urrats ausartak behar dira eta honetan administrazioak erantzukizun handia du; bere esku dago legeak betearaztea eta euskara ofiziala bada, leku guztietara zabaltzea", gaineratu du. Hori dela eta, Goierri osasun zerbitzu euskaldun baten beharra aldarrikatuz mobilizazioak egiten ari da eta egingo ditu EHEk.

Joxe Ramon Agirre 'Marron'-ek Pirinioen buruzko diaporama aurkeztu du

'Pirinioa, Harmonia' diaporama egin du Joxe Ramon Agirre 'Marron' mendizaleak. Pirinioetako mendi kate horretan, inguruak berak eta bertako gizon-emakumeek gorde izan dutena da Harmonia ataundarrak zehaztu duenez. Bide batez, hausnarketa egin nahi izan du, Pirinioen etorkizunaren inguruan.

Argazkiak Marronenak dira. Gehienak 25 urte hauetan ateratakoan, baina beste batzuk, gidoiak eskatuta okasiorako egindakoak. Gidoia, Imanol Agirre bizkaitarrak egin du. Ahotsa Mikel Mendizabalek jarri du. Hartza da aurkezlea.

Pirinioak bere osotasunean hartzen ditu diaporamak. Lau kultura: euskaldunak, aragoitarrak, okzitano-

ak eta katalanak. Lau kultura hauetako musika du oinarri diaporamak. Euskaraz egin du diaporama Marronek baina Aragoi eta Katalunian proiektatu ahal izateko, gaztelerara eta katalenera itzuliko dute. 40 minutuko iraupena du ikusentzunekok. Aurrekoak baino luzexegoa da oraingoa, motzegiak zirenaren irudipena baitu Marronek. Formato panoramikoan proiektatua, lau proiektorerekin. 40 x 60 zentimetroko 30 argazki osatutako argazki erakusketa ere izango du aukeran diaporama honek. Formula egokia da ataundarrarentzat diaporama, egilea bertan egoten denez, giro polit, atsegin eta hurbilekoa lortzen baita emanaldietan.



Jesus Aranburu:
Txapeldunen txapeldun

Azaroaren 18an Ordizian jokatu zen Txapeldunen txapeldun gazta txapelketa Jesus Aranburu idiazabaldarrak irabazi

zuen. Azken 10 urteetan Ordiziako gazta txapelketa irabazi dutenentzako sariketa izaten da eta aurreko lehenengo aldiz, iraileko aparteko azokatik kanpo jokatu da, ardoaren azokarekin bat eginez. Aranburuk 1997an irabazi zuen. Bigarren saritua, aurtengo txapelduna, Mari Karmen Perez de Albeniz arabarra izan zen eta hirugarrena, 1994an irabazitako Kontxi Aldasoro mutiloarra.

Ardo azokaren barruan jokatu zen txapelketa eta Arabar Errioxako ardoaren dastaketan ere egin zen lehiaketa. Urteko ardo gaztearen saria Artuke ardoak irabazi zuen. Ondutakoan atalean, Heredad de Guzman de Aldazabal izan zen irabazle.

Juan Jose Aranbururen gazta irabazle

Zeraingo Juan Jose Aranburuk irabazi zuen azaroaren 11n, Zegaman, Urbia eta Aizkorriko bigarren gazta txapelketa.

Odolkien errege: Manuel Barandiaran

Manuel Barandiaran ordiziarra dugu azaroaren 4az geroztik, odolkien errege berria. 29 harakinek hartu zuten parte Beasaingo XVI. odolki lehiaketan. Orain, otsailaren 5ean egingo den bazkari handirako egin beharko ditu odolkiak Ordiziako Aranburu harategikoak.

Beasain-Erreal

Errege Kopako lehenengo kanporaketa Errealaren aurka jokatu beharko du Beasainek. Abenduaren 13an jokatu da partida, Loinatz futbol-zelaian. Gustura daude beasaindarrak egokitu zaien aurkariarekin.

Ikaztegiako X. kros herrikoia

Herrigintza kultur kirol elkarteak antolaturik, X. kros herrikoia izango da abenduaren 3an, goizeko 11etan. 10 kilometroko ibilbidea izango du. Izen ematea, karrera egunean egin beharko da, 9,30etatik 10,30etara.



Andoni Sarriegi
Eskisabel

Norbaitek pentsa lezake txistea edo adar-jotzea dela, baina ez, benetako egia da. Azaroaren 5eko arratsalde goibel eta euritsuan, Ataun San Martingo eliza bikainera joan nintzen beste goierritar asko bezalaxe Jose Manuel Azcuek (horrela idazten bide du eta dute bere deitura euskaraz) Bach-en organoko musikaz ematekoa zuen kontzertura.

Sarreraren, XXXI FESTIVAL BACH MUSIKALDIA izeneko esku-liburuxka eman ziguten, musikaldi oso horren egitarauarekin eta musikagile nahiz interpretarien hainbat xehetasunekin. Liburuxka elebiduna da, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ataungo Udalak eta Ordiziako Udalak argitaratua, kontzertuak ere Donostian, Ataunen eta Ordizian izango baitira azaroaren 5etik abenduaren 4ra bitartean.

Liburuxka elebiduna izan arren ordea, gauza bitxi bat dago bertan, kontzertu gehienetako musika-lanen izenak eta xehetasunak espainieraz daude eta gutxi batzuenak jatorrizko hizkuntzetako izenak dituzte. Azaroaren 5ekoa adibidez espainiera hutsean dago eta horren arabera, badirudi, J. S. Bach-ek espainieraz idatzi zituela izenburuak eta xehetasunak. Nor ari zaigu

J.S. Bach-en musikadun kontzertuek ere euskal soziolinguistika asko erakusten dute

ordea astakeria horiek irenstartazten eta ziria sartzen? Hizkuntzei eta kulturari egin ote dakieke irain handiagorik? J. S. Bach-ek, latinez edo alemanieraz izendatuko zituen noski bere opus handi eta bikainak, baina guri espainieraz jartzen dizkigute hemen inguruko espainiarrek hala darabiltzelako. Espainiarrek espainieratu badituzte, guk zergatik ez ditugu egoki eta zuzen euskaratu behar? Bach-ek ez zuen "*Pequeña misa para órgano*" idatzi. Jatorrizkoa jartzea beharrezkoa da, espainiarrek egiten ez duten moduan, eta baita inguruan "*Organorako meza laburra*" edo gisako euskarazkoa jartzea ere Euskal Herrian euskaldun artean ibiltzeko. Baina ez, hemen Bach ere espainiar egiten da eta ez da inoiz euskalduntzen. Askoren konplexu eta ezjakintasun handien isla baino ez da, erakunde gorenek zigilatutako lanetan gertatu arren. Xoxokeria dirudien honen, musikaren arlo tekniko osoa hartzen du eta beste hainbat alorretan gertatzen den moduan, teknikariak, musikariak kasu honetan, espainieraren morroi huts dira euskararen zipritinik ere gabe, jatorrizko kultura bera ere estaliz eta euskaldunoi gezurrezko informazioa emanez. Askok pentsaraztera eramanez behar gaituen gaia da.

Bigarren arloa: Sarrera-hitzak Ataungo Udaleko Kultura-batzordeburuak egin zituen euskaraz eta espainieraz. Esku-liburuxkan, euskaldunok ez geneukan informazioa zuten erdaldunek espainieraz eta ez zuten noski zer zetorren jakin gabe gelditzeko beldurrik, baina hala ere es-

painieraz ere hitz egin zuen kanpoko herrietatik joandako erdaldunentzat-edo... Gehiengo nagusia bederen Goierriko euskalduna zen han. Ehuneko handiak euskaldunak diren lekuetan, denekikoa egiteko-edo, elebietan hitz egiten da askotan eta Euskal Herrian %10 edo %20ko euskaldungoa edota askotan handiagoa izaten den lekuetan, zer egiten da? Zer egingo da Ordizian eta Donostian beste kontzertuetan? Zenbat aldiz Euskal Herrian, %10 edo %20 euskaldun edo gehiago bildutako lekuetan ez da hitzik ere euskaraz egiten bildutako horien begirunez? Horrek zer pentsatu ugari eman behar digu baztertuak izan ohi garen euskaldunoi. Gizarte honetan dugun egoera larriaren seinale besterik ez da.

Hirugarrena: Azcue beraren jarduna. Guri gauzak errazteko, pieza bakoitzaren aurretik zer zetorren adierazi zuen organotik bertatik eta asmoa eskertzekoa da, baina espainieraz egin zituen adierazpen guztiak eta hori ez dago onartzerik. Azcue oiarztuarra da, kanpoan asko ibilia eta organo-jole paregabea. Ez dakit euskaraz badakien ala ez dakien. Ez dakit, zerbait jakin arren, musikako piezen izenak euskaraz esateko gai den ala ez den. Ez dakit inoiz horretaz arduratu den ala ez den. Ez dakit euskaraz hitz egitea nahi izaten duen ala ez duen. Dakidan bakarra zera da, han zegoen gehiengo euskaldunari, Ataunen, Euskal Herrian, espainiera huts-hutsez egin ziola Azcuek, Aznarrek egingo liokeen bezalaxe eta hori ez da onargarria. Hori, hemen, arlo

askotan, teknikari ospetsu eta erdal funtzionamendudun askorekin leku askotan gertatzen zaiguna besterik ez da, baina ez da onargarria.

Hiru arlo dira, hiru portaera desberdin, baina hiru jokabide horien bidez, espainiarrik gabe euskara ezin erabili ahal izatera eta espainiera euskararik gabe libre eta nonahi erabili ahal izatera garamatzate. Euskara hutsik ezin dugu erabili, ez eta gehiengo euskalduna denean ere, lehenetasun nabarmenik ere ezin diogu eman, baina espainiera bai, hori hutsik erabil dezakegu libre asko eta nonahi. Hori bada erakundeetatik (kulturatik kasu honetan) datorkigun mezua, jokabidea eta jardura, bota dezagun harrika, ezen, hemendik gutxira, denok EGAdunak eta euskaraz lortutako lizentziaturadunak izan gaitezkeenean ere, horrela ez baitugu INOIZ geure hizkuntza, geure adierazpen, sentipen, bizikizun, teknika, teknologia, zientzia, kultura, musika, medikuntza, ikerkuntza eta gainerako esparruetarako baliatzerik izango.

Gomendioa: Hartu Txepten idazlanak eta aztertu hiru portaera horiek hausturatsioaren diagraman non kokatzen diren, zer kalifikazio duten eta zer ondorio dakartzaten. Biziki gomendatzen diet ariketa Euskal Herriko filologo, soziologo, soziolinguista, kazetari eta batez ere agintean dauden politikariei, inguruan dabilztan kultura-arloko eta beste arloetako teknikariei, euskaldun zahar zozo eta inozoei eta orokorki teknokrata "aseptiko" "neutral" euskara gabeko, espainieradun eta espainierazale guztiei.

Euskara txukunean

Eta abar luze bat

Luzea bezain bitxia, traketsa aldi berean. Azkenaldi honetan toki askotan eta askok darabilten esaldia. Baina gaztelaniaz ere badakigunez, garbi dago nondik nora sortu den, ezta? Konturatu gabe bazeunden, berriz, **eta abar luze bat** esaldi hori gaztelaniara itzuli besterik ez duzu.

Orain bai, ezta? Eta, tira, nola esaten da, bada, euskaraz? Euskaraz antzekoak adierazteko, errepikapenak ditugu, **eta abar, eta abar**, alegia. Nahi adina aldiz errepika dezakegu gainera, gustura geratu arte: **eta abar, eta abar, eta abar, eta abar,...** konforme?

Maizpide Euskaltegia

Futbol ekipoa

Urriaren hondar-hondarrean ari naiz idazten honako mezu hau, Gipuzkoako Goierriitik probintzia osora (errepara *urri* eta *hondar* horiei). Hiru partidatan hamalau gol jasota (errez esaten da, horratio!), azken putz dago Erreal. Hori da: dago; ez baitabil inoren gustura, arranea! Hau da lotsaren motza. San Andres bezperetan halamoduz egongo ote den daukagu errezeloa; aztikeriaren batek batekoz bestera egin ezean, behintzat.

Errezeloak eta ikarak medio, gure probintzia duin baina sumin honetan bistan da, dagoeneko, lotsaren minak latzak direna; azaletik mamian barrurago eta minago, gainera. Gogotik penatzen ariko dire Donostian, Goierriin, Ormaiztegin...; gogotiago, ordea, hangoxe txuloko koadrila larri batean (edadez, larri; eta *edadez* diodanean, *adinez* nahiko nuke esan).

Eta hemen dator gaurko nire mezuaren koxka, hemen. Belarriak dituenak entzutekoa du hau, entzutekoa duen bai, Errealaren abelera makur honetan. Arestian aipatu dudan koadrila iaio arraioan bakarren batzuek antxinako aztien jakintza ezkutuak dituzte! Ez alferrik dira, izan ere, Luixa Kantiñaren kojurueta jaioak eta Fabian txiteroaren LUBE-aren ketan haziak.

Eta, azti diren partetik, aspaldi atera zuten igarpen modura futbol ekipoa perfektoa, erabakiorra; inongo beste ekipok, eginahalak eginagatio, egundo aztalik bilatuko ez diona. Neuk izan dut, zorionean, miragarritzko ekipoa hori isil-gordetik ateratzeko ditxa. "Etziok urrutikok abonau!" esango du akaso baten batek, baina halaxe da; larrutio kosta bazait ere. Aurki emango dizuet agirira. Solamente, aurretik esan beharra da, horko izenek badutela beren *intrinfulisa*: sinboloa, adierazpena, irudikizuna... Auskalo! Ai, aztiaren hitzak... Hortxe dago, baina, den-dena. 'Zera' horren giltza asmatuenean, eta Periko Alonsoro adierazienean, ekilikua!, akabo gure lotsak: gure Erreal mirri-triste-belaxkaren buruhausteak denak pikotara lihoazke. Egundo ez omen da berandu: Jainkoak ematen omen du hotza adina tapaki. Erne arreta, beraz:

Zánbaro

Atalaga, Séstraka, Lápea

Esola, Itturpe, Múrmu

Pértika, Gáñaga, Kábilla, Ezpala

Entrenatzaile, Txurtxil; laguntzaile, Marxal.

Hona, bada, ormaiztiarrok mira haundiakin ikusten dugun aztikeriazko ekipoa sekretua agirira eman. Inork probintzian erreparo pittin bat ipiniko al dio nire mezu honi; ez al naute ttotoaren salara bidaliko, behingotio.

Bukatze aldera, hara zer utzi zuen idatzita Ataungo Joxe Migel haundiak aztien igarpenei buruz: "Aztiti-izen indarrez, Errealaren lañoari beste bide bat artuerazi eta ekaitza urrundu leikela askok sinisten dute". Bai, koanto! Ahor, ba.



Jesus Mari Mendizabal



MUJIKÁ
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

iBAi ONDO



AROTZEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan
Mota guztietako arotzegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltzikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Arropak garrantzia handia al dauka kirolarientzat?

Bai, dudarik gabe.

Kirol dendentzat urteko garairik onena? Eta txarrena?

Negua, eguraldiak lagunduz gero. Txarrena, uda.

Zer saltzen da gehien?

Kalean erabiltzeko arropa.

Herri kirolaria al da Ormaiztegi?

Bai.

Zein kirol gustatzen zaizu gehiena ikusteko?

Eskupilota.

Eta egiteko?

Mendi irteerak.

Kirolari bat:

Alberto Iñurrategi, Koke Lasa, Aitor Elkorro, Abraham Olano...

Mendia ala itsasoa:

Mendia.

Odolkia ala mondejua:

Odolkia.

San Andresetarako plan bat:

Afari on bat lagunekin eta ondoren dantza.

Hotzari aurre egiteko errezeta:

Dantza egitea.

Musika talde bat:

Gero, Ormaiztegiko taldea.

Amets bat:

Ametsik ez, helburuak bai.



Kontxi Simon

**Kemen Kirolak
Ormaiztegi**

Lehiaketa

Galdera

Noiz ospatzen da San Nikolas eguna?

Erantzuna abenduaren 11rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria

Idiazabal gazta eta GOIERRITARRA aldizkariaren kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Urruñako eta Ziburuko ikastolen alde.

Irabazleak:

Leire Hernandez (Ordizia)

Ibaia Zurutuza (Ordizia)

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA



Olagi Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

Lili
loradenda

Ezteiak, zentroak, koroak,
lore lehorrak, balkoiak....
Zaldizurreta 3 behe, Beasain 943 888149

KEMEN

KIROLAK

Jai zoriontsuak denoi!

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

Abenduaren 6an San Nikolas eskea Seguran

Abenduak 6, San Nikolas eguna, egun handia izaten dahirrentzat Seguran. Tradizio handiko ospakizuna da Seguran San Nikolas eta herritar nahiz kanpoko haur ugari elkartzeko da Segurako kaleetan, San Nikolasen kantua abestu eta leihoetatik botatakoa bilduz.

Goizeko 10,30etan, Elizako San Nikolas aldarean meza ospakizuna egin ondoren, hamaikak aldera, pilotalekuan, San Nikolas zaldi gainera igo eta Jermaneneraino joango da. Bikario-etxean amaituko da San Nikolas eskea, tartean, mojen komentura bisita eginez.

San Nikolas buru izaten da egun horretan. Gainerako haurrak atzetik. San Nikolas-ek gurutze handi bat eramaten du lepotik zintzilik. 'San Nikolas' oihukatzen du, gurutze santuaren eginez. Orduan, gainerako haurrek, San Nikolasen kantua abesten dute. Garai batean gaztelaraz kantatzen zen baina ikastolak sortu zirenean, kantua euskaratu eta harrezkerotik euska-



Ezkerretik lehenengoa, Jokin Sarasola, izango da San Nikolas.

raz kantatzen da.

Leihoetatik goxokiak, di-rua... botatzen dute herritarrek gaur egun. Laureano Telleriak segurarrak gogoratu duenez, "garai batean garai-ko fruituak botatzen zituzten. Sagarrak, intxaurrak, mizpe-
rak... laranjaren bat botatz gero a zer nolako festa! Lauz-pabost etxe aberatsanetan opari berezia ematen zioten San Nikolasi".

Haur asko inguratzen da Segurara egun honetan; bai herriko eta bai kanpoko. Lau-tatik bat kanpotarrak izaten omen dira. San Nikolas eskean dena den, 11 urte baino

gutxiagoko haurrek bakarrik parte har dezakete.

Egun honetako protagonista nagusia San Nikolas izaten da. Aurten, Madalena-Errotako Jokin Sarasola egokitu zaio ohorea, ikastetxean egindako zozketaren ondoren. Gaur egun, 5-6 urteko mutikoa izatea da San Nikolas izateko baldintza.

Arratsaldean ere festa

Azken urte hauetan, arratsal-dera ere luzatu dute haurren festa. 17:30ean, txokolate ja-na, erraldoiak eta buruhand-
iak, trikitilariak eta taloak izango dira. Haurrei taloak

egiten erakusten zaie bertan. 17:30ean, hitzaldia izango da, Belgikan San Nikolas eguna nola ospatzen duten azalduz, Paki Ofizialdegiren eskutik.

Ramona Lezeta

Tradizio hau osasuntsu dago gaur egun. Dena den, Laureano Telleriak argi dauka, Ramona Lezetari esker dagoela bizirik. "Bere etxean, Sakrista-
tauenan, gorde izan da jan-tzia eta bera izaten zen eguna antolatu eta San Nikolas au-keratzearen arduraduna. Gaur egun bere alabak ja-rraitzen dio ardurari".

Turismo bulegoa eta erakusketak

San Nikolas eskera datoze-nek, Seguran aukera ederra daukate beste hainbat ekin-tzatan parte hartzeko. Abenduaren 6tik 10era, turismo bulegoa irekita egongo da Kultur etxeko bideo aretoan, 11,30etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Bertatik, bisita gidatuak, zuhaitz eta zuhaixken erakusketa eta Belgikan San Nikolasi buruzko erakusketa ikusteko auke-ra bideratuko dira.



KULTUR ETA TURISMO EKINTZAK:

Abenduaren 6tik 10era Kultur Etxeko bideo aretoan

Erakusketak:

- ✓ Zuahitz eta zuahixkena
- ✓ Belgikan San Nikolas eguna nola ospatzen duten

Tradizioak

- Bixita gidatuak
- Turismo bulegoa



SEGURAKO UDALA

Zatoz,
gonbidatuta zaude!

Edozein argibidetarako:
943 801 006

Kilometroak denda zabalik Beasaingo zine ondoan

Urtean zehar Kilometroak 2001-eko materiala salgai egongo den denda irekiko da bihar, azaroak 25. Beasaingo zinearen eraikinean, Bideluze tabernaren ondoan, prestatu dute denda.

Azaroko azken egunetan, arratsaldeetan, 17:00etatik 20:30era egongo da zabalik. Abendutik aurrera, goize-tan ere zabalik egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

Kilometroak 2001 ikurra daramaten arropa eta osagai ugari egongo da

salgai. Argazkian ikus daitezkeen arropa dotoreez gain, berrikuntza mo-
duan, inguruko artisauek egindako
produktuak ere aukeran egongo dira.
Xextoak, makilak, koadroak, egur-la-
nak... ez-tia, gaztak, orein produk-
tuak...

Beraz, denda konpletoa prestatu
dugu Kilometroak 2001eko materiala
saltzeko eta lan horretan ibili diren
Ikastolako gurasoei eta Bideluze ta-
bernako adiskideei eskerrak eman
beharrean gaude egin duten lanagatik
eta eskaini diguten laguntzagatik.



Aritzaga,
Ibon, Nerea,
Uxue eta
Ugaitz
Kilometroak
2001eko
neguko
arropak
jantzita.

BIDE LUZEAN ERABILTZEKO ESALDIAK

"Egiak mila aurpegi ditu, egiazkoa, ordea, bakarra".

Hermann Hesse.

DBHko Komunikazio Tailerreko ikasleak

Kilometroak 2001en aurkezpen ekitaldia azaroaren 24an

Gaur, azaroak 24, datorren urteko
urriaren 7an Beasainen ospatuko
den Kilometroak 2001 jaiaren aur-
kezpen ekitaldia egingo da, Usur-
be antzokian, arratsaldeko
7.30etan hasita. Sarrera dohainik
izango da.

Kilometroak 2001 logotipoaren
aurkezpena egingo da bertan. Lo-
gotipo hori daramaten arropen
desfilea ere izango da. Neguko
moda aurkeztuko dute, egun ho-
netan modelo lana egingo duten
Goierriko pertsonai ezagunek eta
Ikastolako haurrek.

Beasaingo txalapartari eta triki-
tilarien saioa izango da jarraian.

Ekitaldiari amaiera emateko,
'Goierri expresen lapurreta' bertso
trama aurkeztuko dute Goierriko
hainbat bertsolarik. Gidoia Har-
kaitz Cano eta Aitor Sarriegik
prestatu dute. Bertsotan, bost ber-
tsolari arituko dira: Itsasondoko
Mikel Mendizabal, Gabiriako Iñaki
Murua, Altzagako Alaitz Sarasola,
Beasaingo Mikel Aranburu eta Or-
maiztegiko Jose Ramon Elortza.

Abenduaren 17an, auto igoera

Abenduaren 17an, goizean, Kilo-
metroak 2001ek antolatutako bes-
te ekitaldi bat izango da: Erauskin
auzorako III. auto igoera.



ARRIKUTZ Tailerrak

Autoen konponketa orokorrak

Salmenta

Informazioa

Karnetik gabeko autoak

Tel.: 943 88 52 00

Nafarroa Etorbidea, 51

BEASAIN

H HONDA



Mari Jose Beloki Kilometroetako arropa aholkularia: "Adin guztietarako arropak ditugu"

Mari Jose Beloki da, datorren ikasturtean, Beasaingo Ikastolak antolatuko dituen Kilometroetako arropa aholkularia. M. Jose Beloki zaldibitarra bada ere, aspaldian bizi da Azpeitian, eta Kilometroak 2000ko arroparduraduna izan zen.

Jakin nahi genuke zein izango den Beasaingo Ikastolak modan jarriko duen arropa negu honetan.

Iaz Azpeitian Kilometroetarako erositako arropak izan zuen estimazioa kontuan hartuz aukeratu dut aurtengo ediziorako arropa. Prenda nagusia kamiseta publizitarioa izaten denez, kamiseta horiekin konbinatzeko moduko arropa hautatu dut: txandalak, modako prenda asko. Negu honetarako modan egongo direnetakoak, nagusiki gazteen eskaerari erantzuteko: galtza kanpaidadunak, petatxodunak, kamiseta kolore ezberdinetakoak, kolore askotako jertseak...

Arropa hau noiz aurkeztuko da?

Azaroaren 24an izango da logoaren eta Kilometroen aurkezpena, Beasaingo zine-aretoan, arratsaldeko 7,30etan. Han aurkeztuko den bertso-tramarekin batera egingo da arroparen desfilea ere. Eta denda hilaren



25etik aurrera irekiko da, Beasaingo zinema ondoan, Bideluzen.

Bestalde, Gipuzkoan barrena egingo dira irteera asko. Horien artean baita Durangoko azokan ere, abenduaren 3an.

Non inspiratu zara arropa hautatzeko?

Nik urte asko dramatzat mundu honetan, eta asko fijatzen naiz jendeak jazteko dituen joerekin. Horretaz gain, iazko esperientzia ere garrantzi handikoa izan da. Eta Kilometroei begira, ikasi dut zein arropak izaten duen es-

timazio gehien. Hori bai, ia beti, gazteei begira inspiratuta. Zer gustatzen zaien, zein kolore nahiago duten...

Gazteak aipatu dituzu, baina helduentzako ere arropa egongo da, ala?

Arropak adin guztietarako daude. Umeentzako 3 urtetik aurrera, eta helduentzako ere bai. Hala ere, helduentzako aukera zailagoa izaten da moda kontuan sartzen bagara. Edonola, denentzako dago arropa, emakumezko zein gizonezkoentzako.

Zein arropa mota salduko da?

Ume txikientzako txandal-prakak sudaderarekin, praka eta polarrak, kamisetak... Hauek guztiak gazteentzako ere bai, baina baita gonak, praka kanpanazkoak, modako kamiseta eta jertseak... Helduentzako berdin. Orain negua datorrenez, aukera haundia egongo da polarretan.

Arropaz gain beste jenerorik jarri behar al da salgai dendan?

Osagarri bezala egongo da bisuteria, motxilak, kartutxerak... Eta gainera, Gabonetarako, bereziki, artisautza jeneroa ere izango da.

DBHko Komunikazio Tailerreko ikasleak



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**



GENERALI Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Ander Deunaren jaiak Ormaiztegin

Azaroak 25, larunbata: egun elegantea:

12:00etan: Lagun taldeen bilkura, eleganteen eguna ospatzeko.

14:30ean: Gazteek antolatutako bazkaria herriko enparantzan.

18:00etatik 21:00etara: Maider eta Xabi trikitilarien kalejira herrian zehar.

17:00etan: Dar-Dar antzerki taldearen 'Aliziaren mundu zoragarria' antzezlan. Haurren parte hartzea bultzatzen du. Eguraldi onarekin herriko enparantzan eta txarrarekin Zubipe kiroldegian.

23:00etatik 02:00etara: Alaitz eta Maider triki taldearekin dantzaldia, Itxune ondoan.

Azaroak 26, igandea:

11:00etan: VII. Artisau erakusketa herriko enparantzan. Lazkaoko talogileek eginiko taloak dastatzeko aukera izango da.

12:00etan: Meza Nagusia.

12:00etatik 14:30era: Maider eta Xabi trikitilarien kalejira herrian zehar.

17:00etan: Panta Rhei antzerki taldea.

19:00etan: Goruntz dantza taldea Zubipe kiroldegian.

Azaroak 29, asteazkena: Ander Deunaren bezpera:

18:30etik 19:30era: Txindata trikitilari taldearen kalejira.

19:30ean: Suzirien jaurtiketa 2000. urteko festei hasiera emanez. Buruhandiak alaituko dute giroa.

Azaroak 30, osteguna: Ander Deunaren eguna:

Egun guztian, Hernaniko 'Los incansables' txarangak giroa alaituko du.

10:30ean: Tolosako musika eskolako dultzaineroen goiz eresia.

12:00etan: Meza Nagusia, Ander Deunaren omenez. Legazpi Santikutz abesbatzarekin.

Ondoren: Udalak Baso-txulo elkartearen laguntzaz eskainitako hamaiketakoa. Lazkano, Agirre eta Peñagarikano bertsolariak eta Saralegitarren herri kirol jaialdia.



16:30ean: Mugerza eta bere animalien ikuskizuna herriko enparantzan.

16:30ean: Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak.

Ondoren: Haurrentzat txokolata jana, Guraso elkartearen laguntzaz.

Abenduak 1, ostirala:

Egun guztian zehar, haurrentzako parkea Zumalakarregi enparantzan. Eguraldi txarra egingo balu Zubipe kiroldegian jarriko da.

16:00etan: Mus eta punttu txapelketak jubilatuen egoitzan.

23:00etatik 02:00etara: Rock taldeen kontzertua, Itxune ondoan.

Abenduak 2, larunbata:

12:00etan: Haurren danborrada.

13:00etan: Mozorroturiko lagun taldeek herriko kaleak alaituko dituzte.

14:00etan: Haurrentzako parkea Zumalakarregi enparantzan.

16:00etan: Toka, igel eta bote txapelketak jubilatuen egoitzan.

19:00etan: Helduen moztaroen desfilea, dantza eta sa-

ESTANKO janaridenda

- ✖ Egunkari eta aldizkariak
- ✖ Opariak
- ✖ Eskolako gaiak
- ✖ Mertzeria

Festa onak pasa!

© 943 88 77 24
Serapio Mujika Plaza, 3
ORMAIZTEGI

EKAITZ

**TABERNAk jai
zoriontsuak opa dizkizue**

☎ 943 88 27 71 **ORMAIZTEGI**

ARANTXA taberna

Pintxo eta ogitartekoak

San Andres, 13
☎ 943 88 28 22 **ORMAIZTEGI**



EINE-AMI

LANCIA ZERBITZU OFIZIALA

San Andres jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

☎ 943 88 10 61

ORMAIZTEGI



ri-banaketa, Zubipe kiroldegian.

23:00etan: Muganix triki taldearen kontzertua Itxune ondoko oholtzan.

Abenduak 3, igandea: Jubilatuen eguna:

11:00etatik 14:00etara: Herriko enparantzan IX. Ormaiztegiko odolki lehiaketa, III. Odolki osagaien azoka eta lehiaketa, Euskal Herriko produktuen azoka eta erakusketa, eta Ormaiztegiko odolkia osagai duten plateren I. Sukaldaritza lehiaketa herriko emakumezkoentzat.

11:30ean: Tolosako Udal txistulari bandaren kontzertua.

12:00etan: Meza Nagusia, Tolosako txistulariekin.

12:30ean: III. Ziklo-kros proba herrikoia.

12:00etatik 14:30era: Koldo Tikitixa eskolako trikitilarien kalejira.

13:30ean: IX. Ormaiztegiko odolki lehiaketaren sari-banaketa eta odolki probaketa, Baso-Txulo eta Barduliarrak elkarleen laguntzarekin, herriko enparantzan.

19:00etan: Herri kirol jaialdia Zubipe kiroldegian. Aizkolariak, Olasagasti-Arros-pide Elorriaga-Mugerzaren aurka. 13 urteko Ugaitz eta 12 urteko Aratz Mugerzaren jarduna ere izango da. Harrijasotzaileak, Iñaki eta Iñaxio Perurena aita-semeak.

Mendi astearren azken txanpa

Asteazken zehar hainbat ikusentzunezko ikusteko aukera izan da eta asteburuan izango da azken txanpa.

Azaroak 24, ostirala:

Eneko Pouren 'Urte bat zuri-beltzean' emanaldia, Zubipe kiroldegian, 19:30ean.

Azaroak 25, larunbata:

10:00etan, eskalada saioa Zubipe kiroldegian.

Azaroak 26, igandea:

Goizeko 8,30etan, Ormaiztegi-Ormaiztegi mendi irteera herriko enparantzatik abiatuta. Helmuga Itxune erretegi aurrean. Partaideen artean hamaiketako banatuko da.

18:00etan, gaztina erre jana plazan. Jarraian, kirol elkarreko mendiko sailaren filmina emanaldia.

Saralegitarren herri kirol jaialdia

Leitzako Saralegi anaiek harrijasotzen eta aizkoran egingo dute lana: 200 kiloko errektangularrarekin 3 altxaldi, 250 kilokoarekin 2 altxaldi eta 280koarekin altxaldi bat; 200 kiloko errektangularrarekin esku batez 3 altxaldi eta 100 kiloko boro-bilarekin, lepo inguruan birak emango dituzte.

Aizkorari dagokionean egin beharreko lana: 5 metroko alturan bi egur eta

egur pendular bat ebakiko dituzte; azkenik, esku bakar batekin beste enbor bat ebakiko dute.

Erakusketak

Udaleko erakusketa aretoan herriko eskulan ikastaroan emakumeek egindako lanen eta Urretxuko Aspaceko taldeak eginiko saskien lanak ikusgai. Orduetgia: azaroaren 25 eta 26an, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; abenduaren 1ean, 18:00etatik 20:00etara.

KUKO Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu; Asteleheneetik ostiralera menu bereziak.

Toki mugatua dagoenez eskaerak aurrez egitea komeni da.

On egin diezazula!

Berjalegi plaza z/g

943 88 28 93 ORMAIZTEGI

Comercial MARKEL

Zumarralde, 2
Tfnoa - faxa:
943 16 15 56
ORMAIZTEGI

✖ Iturgintza eta elektrizitate

✖ Berogailuak

✖ Burdindegia

ELEKTRAGAILU DENDA



San Andres, 31

943 882772 (etxea)

943 161366 (arrandegia)

ORMAIZTEGI

AIMOSPORT COMPETICION

Lehiaketetako esperientzia dugu alde

Zumarralde 8 943 88 28 15 ORMAIZTEGI

Zure kotxeo seguritatea hobetu nahi baduzu, suspensio, direkzio eta frenuetan...

Bisita gaitzazu!

Angel Elorzak 20 urteotako Ormaiztegiako argazkien erakusketa prestatu du

Angel Elorzak, azken 20 urteotan Ormaiztegin izan diren gertakizunei erreperaso emango dio, Ander Deunaren jai hauetarako prestatutako argazki erakusketaren bidez. Festak, ospakizunak, gertakizunak, udal-letxe, politika eta kulturako gaiak... 65 bat argazki osatuko da erakusketa, gehienak txuri-beltzekoak. Erakusketaren aurkezpena azaroaren 29an egin ondoren, 30etik abenduaren 3ra 12:00etatik 14:00 etara eta 18:00etatik 20:00etara zabalik egongo da Kultur etxean.

Aspalditik atera izan ditu argazkiak eta 1990an hasita, 3 urtez, Egin egunkariko kronista izan zen eta argazki asko pilatu zituen. "Konturatzeko zara herriko historia direla argazkiak". Beraz, ar-



Eskubaloit taldearen argazkia 1992koa da, lurraldeko txapelketa irabazi eta nazionalako 2. mailara igotzea lortu zuten. Argazkian, goitik hasita, ezkerretik eskubira: Dunixi Murua, Joseba Peralto, Jon Aldanondo, Imanol Leturia, 'Koti' Elozegi, Ambrosio Apaolaza, Iñaki Perez de Albeniz, Josu Baile, Agustin Elozegi, Aitor Oñatibia, Juan Karlos Diez, Mikel Esnaola eta Iñaki Leturia.

gazkiak ateratzen jarraitzea erabaki zuen ormaiztegiarrak. Mende bukaera honetan, azkeneko 20 urteotako

argazki erakusketa egitea pentsatu zuen, memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin. Erakusketan or-



Angel Elorza.

maiztegiarrak dira protagonista nagusiak Elorzak zehaztu digunez.

Ofizios ez da argazkilaria, zaletasunez bai. Estudioko lanak ere egiten ditu. Argazki ralietan parte hartu izan du, ikasten joateko. Interneten barrena ere ibiltzen da besteen argazki lanak ikusiz.



1981eko San Andres ziklo-kros proba Iñaki Maiora herritarrek irabazi zuen. Argazkian, Javier Lasa Kultur zinegotzia saria ematen.



Hego Euskal Herriko lau hiriburuak itzulia egin zuten hainbat zikloturistek, 1986ko uztailaren 5ean. 430 kilometro guztira, eta 21 ordu behar izan zituzten ibilbidea osatzeko. Gaueko 12etan atera eta gaueko 9etan amaitu zuten. Argazkian, ezkerretik eskubira: Javier Pinillos, Eliseo Gorospe, Pedro Martinez de la Hidalga, Jose Ignacio Izaguirre, Benito Calzada, Roman Larena, Javier Alcalde eta Jose Luis Noriega.

MURUA
TABERNAk
Jai zoriontsuak opa dizkizue!
☎ 943 16 30 03 ORMAIZTEGI



MUJIKA
Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA



Jesus Mari Debak sari berriak

Jesus Mari Deba herritar harakinak berriz ere sari berriak eskuratu ditu. Hain zuzen igaro berria den Jose Maria Busca Isusi Buzkantzak lehiaketaz ari gataizkizue.

Debak azken urteetan odoligintzan sari asko eta asko lortu izan ditu, aurtengoan ere Zumarragako lehiaketan bigarren saria eta aurkezpen onenaren saria lortu ditu. Baina aurtengo sari hauek ez dira Jesus Mari Zumarragako buzkantza lehiaketan lortzen dituen lehenengo sariak, aitzitik aurkezpen onenaren hirugarren saria du aurtengoan. Bestetik gogoratu iazko urtean Zumarragako lehiaketan bigarren aldiz aurkezpen onenaren saria Debak lortu bazuen ere,

lehiaketako irabazle Iñaki Kanpos herritarra izan zela. Beraz odolkiez gain ormaiztegiar harakinek eginiko buzkantzek ere epai ona jasotzen dutela argi dago.

Zumarragako buzkantza lehiaketa

2000. urteko Zumarragako buzkantza lehiaketan hamaiak harakinek parte hartu zuten. Arratsaldeko ordu biak aldera aurtengo irabazlea Fernando Salegi zumarragarra izan zela jakitera eman zuen Epaimahaiak Alberto Busca, Juan Jose Lapitz, Luis Mokoroa, Jose Juan Castillo, Patxi Mendizabal, Jose Manuel Zubizarreta, Alberto Elorza, Alfonso Arratibel, Pedro Ruiz Elizondo,

Juan Manuel Garmendia eta Luis Juan Unanuez osatua egon zen.

Epaimahaiak aztertu eta baloratu zituen alderdietariko batzuk aurkezpena, osagarri fisiko-kimikoak, eta antzerakoak izan ziren. Gogoratu buzkantzen osagarri nagusienak ardi odola eta koi-pea, tipola eta porrua direla.

2000. urteko Debaren sariak

Jesus Mari Deba herritarrek 2000. urteari hasiera sariak eskuratuz eman ziola gogora ekarri nahi dugu, zorionez amaiera ere ildo beretik doa kiola esan dezakegu. Hain zuzen urtarrean, Mungian jokatu zen Euskadiko odolki lehiaketako irabazle izendatu

zuten. Aitzitik Mungian jokatu zen aipatu lehiaketa IV. Lukainka eta odolki lehiaketa izan zen, bertara 36 barazki-odolki, 25 arroz-odolki eta 46 lukainka aurkeztu ziren. Beraietatik barazki-odolki onena Jesus Mari Deba herritarrek egin zela jakitera eman zuen 30 aditu inguruk osaturiko epaimahaiak.

Beraz Jesus Mari 2000. urteari hasiera aipatu sarietako sariak eskuratuz eman bazion ere, urte amaierara bitartean beste sariren bat eskuratu ezean behintzat, Zumarragako lehiaketan lortu berriak dituen sariren gorai-pemenekin emango dio amaiera.

Aitziber Murua

Odol-emaileei dominak

Goierrri eskualdeko odol-emaileen elkarteek beraien urteroko batzarra eta eguna ospatua dute. Batzar horretara Ormaiztegi-ko odol-emaileen elkarte-ko kideak ere gonbidatuak izaten dira, eta aurtengoan ere bertan parte hartu zuten.

Urtero-urtero odol-emaileen artean dominen banaketa egin dute, 50 eta 25 odol ateraketeetara iristen direnen artean. Goierrin 50 odol ateraketeetarako iritsi diren 12 kideek eta 25 ateraketeetara iritsi diena beste 97 kideek jaso zituzten aurtengoan dominak.

Aipatu kideen artean Ormaiztegi-ko odol-emaileen elkarte-ko hiru kideek jaso zituzten dominak. Gabiriako Jose Aizpuru, Jose Andres Lasa eta Martin Urteagak 25 odol ateraldiei dagokien domina jaso zuten. Gainerako elkartekideek omenaldi beroa jaso zuten.

Gabonetako loteria salgai

Urtero bezala aurtengoan ere odol-emaileen elkarte-ko Eguberrietako loteria erosteko aukera eskaintzen zaigu. Murua tabernan jarriko da salgai.

ITXUNE ERRETEGIA



Gazte giroa

- **Taberna musikala.** Larunbat gauetan karaokea
- Etxeko sukaldaritza
- Eguneroko menua 1.100 pzta.
- Pintxo, ogitarteko eta ifernuko txorizoa

Gabirialde, 14

☎ 943 88 73 51 - 943 88 89 92

ORMAIZTEGI

Etxebizitzak egiteko lurak salgai

Nekazal inguruan kokaturik dagoen herri txiki bat duzue Gaintza eta bertan eskaintzen zaizue lasaitasunez eta naturaz inguratutako etxebizitza eraikitze aukera.

Gaintzako Udalaren jabetzako diren lurak jartzen dira salgai, bertan 4 etxe bifamiliar (zortzi bizitza) eraiki ahal izateko, berriro diren arau subsidiariotan azaltzen den moduan.

Lur zati horiek konkurtso bidez salduko dira aurkeztu direnen artean.

Udalak egin zuen lehen saiakeran lau lagun azaldu ziren interesaturik etxebizitza horiek eraikitze, beraz oraindik beste lau eraikitze aukera gelditzen da. Udalak berriro ere beste 26 eguneko epea irekiko du jendeak eskaerak aurkeztu ahal izateko 2. saiakera batean.

Bi baldintza bakarrik bete behar dira konkurtsoan parte hartzeko: batetik, 18tik 35 urte bitarte izatea eskaera aurkeztu duenak, eta bestetik, bere lehen etxebizitza izatea, bertan bizitzeko.



Eugenio Matxain eta Basilia Artolak urrezko ezteiak

Azaroaren 19an ospatu zituzten Albizturko Santa Marinaran urrezko ezteiak Eugenio Matxain Irastorzak eta Basilia Artola Zabalak.

1950eko azaroaren 16an, Alegiako eliza nagusian ezkondu ziren, Gaintzako semea, Eugenio

eta alegitar Basilia. Geroztik, Txindokiren babesean dagoen Sokobio baserrian bizi izan dira. Lau semeren gurasoak izan eta makina bat hala-nolako jasan ondoren iritsi dira beste helburu bat gainditzera.

Lerro hauetatik, beraz, zorionak eta orain arte bezala jarrai dezazuela, osasunari eutsiz eta ilusioa lagun duzuela.

Mediku kontsulta berria

Azaroaren 13az geroztik, herriko osasun zerbitzuek egotza berritua dute. 6 hilabete iraun dute lanek. Aurretik kontsultak zuen lekua handiagotu egin da. Aurrerantzean, medikua eta praktikantea, biak, solairu berean egongo dira. 20 milioitik gorako inbertsioa egin du Udalak. Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza ere jasoko du.

Sanblasak

2001 urteko Sanblasak otsailaren 1etik (osteguna) 4ra (igandea) bitartean egingo dira. Aurreko igandean, urta-

rrilaren 28an hasiko dira festetako ekitaldiak. Krosa eta haurren tanborrada izango dira egun horretan. Festa Batzordeak ostiralero egiten ditu bilerak Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Datorren urteko Sanblasetarako proposamenen bat egin nahi duenak, garaiz dabil oraindik.

Festetako egitaraua eta kroserako kartela osatzeko argazki lehiaketa antolatu du Kultura Batzordeak. 5 argazki edo diapositiba aukeratuko dira. Iazko Sanblasetan ateratakoak izan behar dute.



2.160 gramo

Hori da Luis Elorzak Partzonerian aurkitutako onddoaren pisua. Onddo Beltza da. Txapelak 300 milimetroko diametroa du, oinak berriz 85 milimetrokoa.

Abenduaren 5a baino lehen eramane behar dira Udaletxera edo Kultura Etxera.

Muskildira

Zuberoako Muskildi herriarekin hasitako hartuemana

aurrera doa. Larunbat honetan Idiazabalgo ordezkariak Muskildira joango da. Aurreko bileretan abian jarritako egitasmo eta proiektuak zehaztea da helburua.

Xabier Urteaga

Udalbatza osoa epaitegira

Martxoaren 12ko hauteskunde orokorretan ez parte hartzeko hartutako erabakia dela eta, Tolosako epaitegian deklaratzera deitu dituzte alkatea, 8 zinegotziak eta idazkaria, datorren asteartean, hilak 28.

Espainiako hauteskunde orokorretan abstenitzea adostu zuen EHk. Horren haritik, Zaldibiako udalbatzak erabaki zuen hautes-mahaletan egoteari uko egin zioten herritarren nahia errespetatzea, eta zentsu elektoralearen esku uztea zozketan lan hori egitea egokitu zitzaizkion berri ematea, Espainiako hauteskunde orokorrak euskaldunonak ez direnez hori beraien lana ez zela iritzita. Osoko bilkuran hartutako erabaki horiek direla eta, Tolosako epailearen aurrean deklaratzera deitu dituzte orain Jose Joakin Zubeldia alkatea, Oroitz Etxabe, Joseba Murua, Agustin Mujika, Iñaki gurrutxaga, Ramon Sukia, Aitzol Jauregi, Madalen Hernandez eta Ustaritz Ormaetxea zinegotziak, eta Mari Sol Alkaiaga idazkaria.

Jantzi - oinetako bilketa

Karitasek jasoko ditu aurreantzean behartsuentzako ematen ditugun arropa eta oinetakoak. Hemendik aurrera Antonio Etxeberria arduratuko da horiek jaso eta Karitas erakundeari emateaz. Herritarrok aski dugu Azitia-Berri etxearen aurrean uztea, Txaro dendaren ondoan.

Herri batzarra

1999ko uztailean hasi zen lau urteko legeegintzaldiaren lehen urte eta erdiaren balantzea egin, eta aurreantzean

egin beharreko bidea aztertzeke, egun osoko batzarra deitu du Euskal Herritarrok taldeak. Batzarra bihar, larunbata, goizeko bederatzieta hasiko da. Hona hemen ordutegia eta batzarraren gidioa:

9:00-11:00: Urteko balantzea eta lan ildoak; aurkezpena eta eztabaida. **11:00-11:15:** Atsedena. **11:15-13:30:** Funtzionamendua eta batzordeak (taldeak). Egindakoaren balorazioa eta egitekoaren aurreikuspena. Arratsalderako ondorioak jasoko dira. **13:30-15:00:** Atsedena, bazkaltzeke. **15:00-19:00:** Funtzionamendua eta batzordeak (denak batera). Goizean ateratako ondorioak azaldu eta eztabaidatu. Aurrera begirako lan ildoak finkatu.

Ura tuboz ekarriko da

Azken hilabeteotan, ura jaio-tzen den lekutik depositueta-raino ura tuboz ekartzeko lanak egiten aritu dira. Orain arte, ura kanalez iristen zen deposituetara eta herritarrok, deposituetan dagoen horietako putzu batean pilatzen zen ura edaten genuen. Proiektu berri honekin, uda partean urarekin izan ditugun arazoak saihestu nahi dira, ur kalitatea eta ur emaria hobetzearekin batera. Hamabost egun inguru badira, tuboz zuzenean iristen den ura edaten ari garenetik, nahiz eta gorabehera batzuk direla medio, zenbait egunetan ura arre xamar heltzen den gure etxeetara. Beraz, ura Olakosain dagoen etxe moduko horretan garbitu eta kloratu egiten da. Hemen-dik, Saturdiko bailarara joaten da ura, eta aldi berean, Gorriñe gainean dagoen de-

Kultur jarduerak udazkenean

● **Gurasoentzat hitzaldia.** Azaroaren 29an, arratsaldeko 2,30etan, "Jostailuak, zer erosi?" izeneko hitzaldia eskainiko du Arrasateko Txatxilipurdiko kidea den Itziar Bartolomek, Kultur Etxean. Gabonetara begira, haurrei opariak erosterako garaian kontuan hartu behar diren hainbat irizpideren berri emango du

● **Antzerki saioa.** Abenduko lehen egunean, eta Goierriko III. Antzerki amateurraren zirkuituaren barnean, Beasaingo "Errail" antzerki taldeak Jabier Tomeoren "Hutsalkeriak" antzezlan eskainiko du, gaueko 10:00etan antzokian.

● **Ikastaroak.** Udazkenean zehar margoketa, eskulanak, egur taila eta perkusio latinoak bezalako ikastaroak izango dira.

● **Haurrentzako ikastaroak.** Eguberrietan, opor egunetan, haurrentzako margoketa eta eskulanetarako tailerrak izango dira. Irakasle lanetan aritu nahi duenak abenduaren 12a baino lehen izena eman beharko du Kultur Etxean, eta hurrek ere egun berean dute azken eguna izena emateko.

● **Ipuin kontalaria.** Arrate Leundaren eskutik, ipuinak izango dira entzungai Kultur Etxean abenduaren 14an. Saioa arratsaldeko 6etan izango da.

● **Musika eskolako saioa.** Zaldibiako Musika eskolako txistu taldeak emanaldia eskainiko du abenduaren 19an, asteartea, arratsaldeko 7etan eguberrietako saioen barnean.



Talo afaria Zubi-burua

Igande honetarako, hilak 26, Zubi-buru elkartek talo eta gaztaina afaria antolatu du. Afari-merienda hau 7:30ak aldera hasiko da, eta herritar guztiek taloa dastatzeko aukera.

positu zirkularrera. Deposituhonetatik, Goskindikora jeisten da eta hemen, Arkakako bailaratik etortzen den urarekin bat egiten du. Azkenik, ur hau herriko etxe guztietara banatzen da.

Pelota denontzat

Pelota eskolako proiektu berri bat martxan jartzeko asmoa du hil honen bukaerarako. "Pelota denontzat" izena du egitasmo berri honek eta bi

helburu nagusi ditu: batetik, pelota instrumentutzat hartuta haurren heziketa berrantzeaz, eta herriko kirol dinamika berpiztea eta bereziki pelota bizirik mantentzea. Ekimena aste honetan bertan hasiko da eta astelehen eta ostegunetan izango da (16:30-17:30 7 urte artekoak eta 17:30-18:30 7 urtetik gorakoak). Irakasle lanetan Gerizpe Iraola arituko da.

Iñaki Gurrutxaga - Saroi Jauregi

Hasi da kirol eskolarra

Eskolorduz kanpo, heziketa eta jolasa helburu izanik, Xabier Intxausti kirol teknikariaren ardurapean, urriaren 21etik ari dira 8tik 11 urte arteko 51 neska-mutiko eskualde mailako kirol eskolarreko 15. edizioan. San Joanak aldera arte, zapatu-jaietan, etxean eta kanpoan 12 kirol ezberdinetan arituko dira: herri kirolean, esku pelotan, mendian, xakean, igeriketan, tenisean, mahai tenisean, txirrindularitzan, atletismoan, saskibaloian, areto futboleant eta 7ko futboleant. Bi kategoritan lehiatuko dira: 8-9 urtekoak benjaminetan eta 10-11 urtekoak alebineetan.

Asteburu honetan mutil alebinek Zegamakoen kontra jokatu dute, zapatuan 11:30ean Baratze pelotalekuan.

Laguntzaileak: entrena-tzaile, epaile edo begirale modura Xabierri lagunduko diotenak, Uritz Gonzalez (futbola), Inge Olano (futbola), Jabier Arnaez (futbola eta saskibaloia) eta Txetxu Ormazabal (mendia) izango dira.

Pelota eskola

Segurako udalaren iniziatibaz, Zerain, Mutiloa, Zega-

ma eta Idiazabalgo udal ordezkariekin zenbait bilera ari dira egiten, herrietan pelota eskolak sortuz eta elkarrekin koordinatuz kirol hau sustatzeko.

Santa Zezilia

Musikari eta abeslarien eguna azaroaren 22an bada ere, **Musika Eskolakoek** atzo ospatuko zuten, ikasleek Aterpetxean herritarrei eskainiko zieten kontzertuarekin. **Elizako korukoek** azaroaren 26an 12:00etan Pedro Bilbaoren 'Adveniat reginum tuum' meza abestuko dute eta lehenengo aldiz 'Madina'ren Aita Gurea 5 ahotsetara entzun ahal izango da. Ondoren uteroko bazkarian elkartuko dira Txoritegi elkarteak. **Kriseilu txistulari taldekoek** zortziko bat joaz kalejira egingo dute meza ondoren eta korukoekin bazkalduko dute.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Preferentea: Segura 0-3 Zumaiako. **Jubenilak:** Mundarro 2-4 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 6-2 Urola.

Asteburuan etxean: Jubenilak: Segura-Orioko, zapatuan, 16:00etan.

Joseba Telleria

Komentuari buruzko liburua

Azaroaren 9an aurkeztu zen Donostiako Dr. Camino liburutegian artean doktorea den M^a Isabel Astiazaranek idatzi duen 'Segurako Sortuz Garbia Komentua' (iker-keta historiko eta artistikoa) liburua. Azterlana Gipuzkoako Batzordeko Euskalerraren Adiskideen Elkarteak babestu du. Berehala izango da eskuragarri herriko zenbait lekutan.



Joakin Izagirre omendua

Abenduaren 8an Legazpin izango den bolarien egunean, Gipuzkoako zenbait bolari veteranoen artean Joakin Izagirre herritarra ere omenduko dute. Goizean bola tirada izango dute eta ondoren lagun arteko bazkaria.

San Andres eguna

Abenduaren 3an ospatuko da San Andres ermitan. 12:30ean auzoan hildakoen aldeko meza. Ondoren herriko txistularien emanaldia eta Udalaren laguntzaz emandako hamaiketakoa. Argazkian ikus daitekeen bezala, ermittarako egin den bidea da aurtengo nobedade nagusia.



Labur-labur

- **Dantza ikastaroa Laiotz Herri Eskolan.** Eskolak berak antolatuta 4 taldetan banaturik 32 neska-mutiko ari dira astean ordubetez euskal dantzak ikasten, Zezilia Herrador irakaslearen ardurapean.
- **Kalegunetik itturriberrirako bidean** urak hartzeko lanak hasiak dira Diputazioaren aginduz. Bidea breatu ondoren Madalenatik Jermanenerako bideari ekingo diote. Kalegunetik itturriberrirako bidean mantenimendua Udalaren esku geratuko da aurrerakoan.
- Bide bazterrak garbitu, lurrak mugitu eta abarretarako **partzoneriko herrien artean** erosi ziren traktore, desbrozadora, retroa eta pala uda aurretik. Elkarte honetan Beasain eta Zaldibia sartu dira orain. Honek, diru gutxiago jartzea suposatuko die gainontzeko Udalei.
- Udaletxe aurreko plaza inauguratzeko egunik zehaztu ez bada ere, 'Arabarren plaza' deituko zaio eta bertan jartzeko eskultura bat eginga du Joxemari Telleriak.
- Garapen ekonomikoa eta turismoko teknikari eta aholkulari modura azaroaren 8an hasi zen lanean **Jakoba Errekondo**. Asteazkenean 11:00etatik aurrera udaletxean edota herrian zehar ibiliko zaigu.
- Herriko hainbat lekutako **zuhaitzen podaketa lanak** hila-bete honetan hasiko dira.
- **Odol ematea:** Abenduaren 16an, 17:00etan Osasun Etxean.
- **San Nikolas** eguneko informazioa 9. orrialdean duzue.





Kultur ondarea mantendu bai, baina nola?

Aranzadi zientzi elkarteko talde bat San Gregorioko zerrategian lanean ari zela eta, Udaleko kultur arduradun den Santi Etxeberriak hara joateko gonbidapena luzatu zigun orain bizpahiru aste. Sonia San Jose, Aranzadi elkartekoa izan genuen gidari.

98. urtedanik, Udala eta Gaztekutxa erakundearen arteko hitzarmen bati esker, udaero, auzolandegiak antolatuta dira. Bertan parte hartutako gazteen lanari esker, Larruntzako multzo monumental garrantzitsu hau berpiztu ahal izan da. Hasieran burdinola eta errota moduan erabili eta gero, garaiko beharrek hala eskaturik, zentral hidroelektriko, zerrategi eta aroztegi mekaniko bihurtu zen. Multzo honen jatorri historikoak XV. mende hasierakoak omen dira. Orduan Udala eta Lazkaoko jauna bide ziren jabe. Baina egun dirauten eraikuntzen arrastoak, XVIII. mendeari dagozkio. Zerrategia izan ezik. Hau guzere mende hasieran eraikia izan zen eta 1950 ingururarte egon zen funtzionamenduan.

Ondarearen balio historikoa kontuan izanik, udaleko arduradunak Aranzadiko teknikoekin jarri ziren harre-

manetan. Horrela, 1997. urtean Juantxo Agirre eta Alfredo Morazak Larruntzako errotxoari buruzko lehen txostena burutu zuten. Eta 1999.ean, "Larruntza multzoan egin beharreko eskuhartzearen proiektua" jarri zen martxan. Honen buru dira goian aipatu J. Agirre eta A. Moraza, Sonia San Jose-rekin batean. Aurtengoan proiektuaren bigarren faseari ekin zaio. Horrela, zerrategiaren garbiketa eta ikerketa arkeologikoa egin ostean, zerrategiko elementuen inbentarioa egiten ari ziren Sonia eta bere lankideak gu han izan ginenean. Soniaren hitzetan, elementuok kontserbazio egoera bikainean daude, zerra zaharra oraindik ere martxan dago. Eta txostenean irakurri ahal izan dugunez, "lurraldeko alerik garrantzitsuenetarikoa dira". Bildutako datu guztiekin txosten bat idatziko da. Honen ondorioak Batzorde Tekniko batean aurkeztuko dira, zeina proiektuarekin nola baiteko lotura duten erakundeetako teknikariek osatuko baituten. Hots, Udala, Aranzadi, Goitur, Foru Aldundia... Batzorde honek jardueraren behin-behineko proiektua idatziko du.



Bikain bai, baina babeslerik ez oraino

Autonomiko mailan, areto futboleko parte hartzen ari den Ataun Kirol Elkartek hasiera bikaina eman dio denboraldiari. Lehen postuan zihoan aurreneko 7 partiduetatik jokatu ostean, Joseba Kerejetak eta Igor Sukiak zuzentzen duten talde honek, ezinhobeto ari bada ere, babeslerik ez du oraindik. Ia bada norbait animatzen den!

Era berean, Ataun Victor jatetxeak ere, bigarren mailan, hasiera ederra eman dio denboraldiari. Eta nesken taldea ere, Ataun Zubikoeta gasolindegia, denboraldi polita egiten ari dela aipatu. Zorte on guztioi!

Mendi eta baserri bideak. Aurtengo lanak bukatuta

Ataungo udalak urte honetarako aurreikusitako mendi eta baserri bideen eraberritze planak burututzat eman ditu. Muski mendira, Iturtxo baserrira eta Aranberriko artetira egin diren bide konponketa eta hormigoitze lanak Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Goimenen diru laguntzei esker burutu ahal izan dira. Inolaz ere ahaztu gabe Iturtxora bideko konponketetan inguruko lur jabeek, Udalarekin batean, aurrekontuaren erdia ordaindu dutela aipatzea edota, Aranberriko artetirako lanen kostuaren %20a bertako lur jabeek, eskulan modura ordaindu dutela gaineratzea.

Baina kasuotan jakina denez, bada beti arazo bat, dirua. Proiektua aurrera eramaitarren udalak, Foru Aldundia inguruko laguntzaz iaz 3 miloi eta aurtun 2 miloi pezeta eman ditu. Gainera, kontuan izan behar da udala ez dela Larruntzako multzo honen jabe. Ondare garrantzitsu

hau mantentzearen, jabearekin, Jabier Garaialderekin, harremanetan dira udaleko arduradunak akordio batera irixtearen. Penagarria baitlitzateke horrelako altxorra erortzen uztea, inondik ere.

Agurtzane Bikuña



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak**

BEASAIN



Joseba Beloki, Emilio Sanchez eta Ekain Arruabarrenari omenaldia

Gaur, azaroak 24, Lazkaoko herriak omenaldia egingo die 3 txirrindulari lazkaotarrei. Joseba Beloki aurtengo Tourrean 3. egin zuena, Joko Parraolinpiarretan izan zen Emilio Sanchez eta bertan egon behar zuen Ekain Arruabarrenari izango dira omenduak.

Antolakuntza lanetan buru belarri dabilta Udaleko Kirol batzordea eta Lazkao Kirol elkarte txirrindularitza saila, herriko hainbat kirol talde, dantza taldea, txaragaren lagutzaz.

Omenaldiaren aurretik arratsaldeko 6etan ginkana izango da herriko plazan parte hartu nahi duten guztientzat.

Arratsaldeko 7etan omenduei ongietorria egin ondoren omenaldi ekitaldia egingo zaie txaranga, dantzari eta txistularien laguntzaz. Ondoren, Udaletxeko areto nagusian txirrindularitza gai bezala hartuta mahai ingurua izango da, bertan Xabier Usabiaga kazetaria, Joseba Beloki txirrindularia, Jose Luis Arrieta Gizpuzkoako Txirrindulari Elkargoko lehendakaria eta Ruben Gorospe zuzendariak parte hartuko dute.

Azaroaren 22, 23 eta 24an 18:00etatik 29:30etara hiru omenduen eta orokorki txirrindularitzaren inguruko argazki erakusketa izango da Udaletxeko areto nagusian.



Bideo lehiaketa

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek antolatu duen bideo lehiaketan parte hartu nahi duenak arin ibili beharko du. Lanak aurkezteko epea bihar, azaroak 25, bukatzen baita. Bideo hauek edozein eratakoak izan litezke: ipuina, film laburra, dokumentala... Gutxienez 8 minutu eta gehienez 25 minutuko iraupena izan beharko du eta musikaz edo komentarioez jantzia egon beharko du.

Lanak Gerriko liburudendan aurkeztu behar dira eta aurkeztutako bideoekin abenduak liburu eta disko azokarako emanaldia prestatuko dute antolatzaileek. Sariak ere bertan emago dira, irabazlearentzat 25.000 pezeta eta partaideen artean hainbat bideo zinta banatuko dira.

Ardo dastaketa ikastaroa

Udalak antolatuta abenduaren 13, 14 eta 15ean Kultur Etxean ardo dastaketa ikastaroa izango da. Partaideak 10.000 pezeta ordainduta ardo desberdinak dastatzen ikasiko du, benetako kalitatezko ardoa zein den bereizten ikasiz. Parte hartzeko Udaletxean eman behar da izena edo 943 805 411 telefonoan (Miren). Ikastaroak 3 saio izango ditu, bakoitzaren iraupena 2 ordu t'erdikoa izanik.

Montxo Quinaren garaipen berria

Espainiako boxeoko txapeladunorde izan da lazkaotarra pisu arinetan, 63 kilo azpikoetan. Azaroaren 11n Santanderren lortu zuen zilarrezko domina hau. Orain arte Whu Shu borroka motan lortu dituen garaipen ugari, boxeoko hau gehitu dio Montxok.



Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
943 88 13 37
ORDIZIA



RENAULT

AGENTZIA

Senpere Industrialdea
943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea 943 88 60 70
BEASAIN

YOSU THERMIK

LEIHO ISOLATZAILEAK

- PVC leihoak
- Aluminiozko hausdura termikodun leihoak
- Aroztegi mistoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Erakusketa
Ipiñarrieta, 3
943 725 232 **URRETXU**


Fabrikatik zuzenean
Kataide industrialdea, 4 pab.
943 770 157 **ARRASATE**

Gustavo Baigorri: Gironatik Santiagora oinez hilabatean

Santiago bidea sona handia hartzen ari da azkenaldian. Orreaga izanen da akaso, erromesen izpiritua gehien erakartzen duen parajea. Bada ordea, bide hau motz iruditu nonbait, eta estatu espainiarreko alde ekialdeena, mendebaldeanekin oinez lotu duenik. Guztira 1.550 km inguru izan dira, Gustavo Baigorri beasaindarrak, bakarrik, hilabete batean egin dituenak.

8 kiloko motxila bizkar gainean zuela irten zen Gironako Cap de Creux-tik. GR-11 bezala ezagutzen den Pirineo mendikate guztia zeharkatu zuen, ondoren, Orreagan Santiagoko bidea hartuaz. Pirineoak zeharkatzen ari zen bitartean, 40 km ibiltzen zen batz-beste egunero, 2.300 metroko desnibelak etengabe igo behar izaten zituelarik. Behin Orreagara iritsi ondoren, Santiagorako bidea laua denez, 65-70 km egituen zituen egunero, batz-beste 12 ordu ibiltzen zelarik.

Fisikoki ongi egotea bezain garrantzitsua omen da psikikoki ere ongi egotea adierazi digu Gustavok. Batez ere, hainbeste kilometro bakarrik egiten direnean. Pirineo mendikatea zeharkatzea omen da gogorrena noski, eta apenas ikusten den jenderik gainera bide honetan. Buruak, hankak adinako lana



egiten du, batez ere, inorekin hitzegiteko aukerarik ez denean, eta animoak nork eman ere ez dugunean. Oso garrantzitsua omen da momentu horietan burua hotz mantentzea. Orreagatik Santiagorako bidea berriz, laua eta zuzena izanik, fisikoki errazagoa da, baina ez omen da nabaritzen batere aurreratzen duzunik, eta horrek buruari ere bere lanak ematen dizkio.

Bide gogorra

Bideak gogorra behar du izan inondik ere. Are eta gogorragoa gainera hainbeste kilometro epe motzean egitean. Horren adierazgarri da galdu dituen 10 kiloak. Indarrez oso ongi aurkitu dela aitortu digu hala ere, hankak oso ongi erantzun diote eta ez du baben oinazetik jasan behar izan. Sustoren bat edo beste eman diote hankako tiradizoei, baina masaiari baten esku miraritsuekin eta erritmoa zertxobait jeitsita, ongi bukatu ahal izan du.

San Nikolas eskea

Aurten ere San Nikolas eskean arituko dira Euskaldunon Egunkaria-ren alde. Trikitilari eta bertsolariekin, giro onean, Beasaingo kaleetan, Egunkaria-rentzako diru piska bat ateratzeko asmotan. Zita, San Nikolas egunean, abenduaren 6an, Barrendain Plazan (Geltokian) 19:00etan.

Beasain pausoz pauso

Josetxo Zufiaurre beasaindar etnografoak, herrian bertan egin litezkeen zazpi ibilaldiren deskribapena aurkeztu digu. Beasaingo txoko desberdinetatik igarotzen diren ibilaldi hauek batz-beste 8-15 km ingurukoak dira. Matxinbenta, Pagorriaga, Garin, Murumendi, Damazulo, San Gregorio, Larrarte, Arriarango Urtegia, Astiren magalak, Biruin, Usurbe, Sagastigoiti, eta Erauskin auzo inguruetatik barrena igarotzen dira ibilaldi hauek

'Kimuak' briro ere martxan

Aurtengo plangintzaren aurkezpena egingo dute Kimuak Basajauneko begiraleek. Azaroaren 25ean, arratsaldeko 8etan elkartuko dira Kimuak-ek kale nagusian duen lokalean.

Orokorrean Santiagorako bidea ongi markatuta badago ere ez omen da berdin gertatzen GR-11-rekin, errez despista omen daiteke eta alperrikako kilometroak ere egin omen zituen. Andorra eta Hueska omen dira hobekien adierazita daudenak eta okerrera berriz Nafarroa, tarteka bide nahiko itxiak eta sasiak hartuak aurkitu zituen.

Santiagora zenbat eta gehiago hurbildu, jende gehiago izaten da azken kilometroak egin asmoz. Erromesak baino gehiago turistak izaten dira, eta hau arazo bihurtzen omen da aterpetan lekua hartzeko orduan. Jendearenganako duten tratua ere hotzagoa omen da. Gustavok izan zuen esperientzia txar bakarra, aterpetxe batean egin zioten lapurreta izan zen. Diru guztia eta telefono mugikorrik gabe utzi zuten.

Hilabete luze honetan, eguraldia, batzutan lagun izan du baina ez beti. Denetarik ikusi behar izan du. Pirineotan ekaitzak harrapatu zuen eta elurra ere egin zuen. Nafarroa eta Palentzia zeharkatzen ari zela izugarritzko beroa jasan behar izan zuen eta Finisterreko muturreraino iritsi zenean, izugarritzko hai-

ze boladak harrapatu omen zuen.

Santiagoko bideak ba omen du esaten den moduan halako kutsu espiritual bat, batez ere bideak baldintzatzen duelako. Kilometro askotan, bidea zuzen-zuzena da, aldameneetan ez duzu ezer topatzen, eta horrek ematen dio horrelako kutsu misterioitsu hori. Gustavok, zirrara berezia Santiagoko katedralera sartu zenean sentitu omen zuen, eta jende askok esaten omen du berdina.

Oroitzapenak gogoan

Finisterrera iritsi eta izan zuen lehen sentimendua, ibilbide hau egiten hasi aurretik galdu zuen lagunarena izan zen. Menditik zetorrela auto istripuan hil zen Jon Ander Barahona lagunaren oroimena.

Poza sentitu zuen alde batetik, pentsatua zuen ibilbidea bukatzeko gai izan zelako, eta aldi berean pena, jada bukatua zuelako. Gabonetan, "Canal de Castilla" egiteko asmoa dauka. Bost egunetan 350 kilometro inguru. Seguru gaude, aurrerantzean, piztuko zaiola beste balentria bat egiteko nahia.

Nekane Altuna



Giro aparta errezilaren festan

Bosgarren aldiz ospatu den errezil sagarraren inguruko jaiak aurreko urteetako edizioak galanki gainditu ditu, bai parte hartzeari dagokionez, bai bisitari kopuruaren handitzeagatik. Goizeko 10etatik eguerdiko ordu biak arte izan zen zer ikusi, zer ikasi eta zer dastatu pilotalekuan, eguraldiak festari dizdira apur bat jan zion arren. Nekazal produktuen salmenta-postuak inguruan kokaturik, giro polita izan zen frontoiaren babesean.

Errezil sagarrez betetako hogeita bi saskikada zeuden lehiaketara aurkeztuak, inoiz baino gehiago, eta horiek sailkatzen aritu ziren Olatza sagardotegiko Joxe Antonio Iparragirre, Salvador Gorostola azpeitiarra eta Olatuko Martin Irazustabarrena epaimahaikideak. Puntuaziorik onena Izar Aundi baserriko sagarrek lortu zuten, eta Maria Isabel Zumalakarregik jaso zuen zegokion lehen saria. Bigarren Oñatibi Txikiko Miren Agirrezabala gelditu zen, eta hirugarren Urkiola-ko Xabier Arratibel.

Aurten berrikuntza gisara

sartu dute antolatzaileek menbrillo lehiaketa, eta uste ez zuten arrakasta hartu ere bai. Hemeretzi menbrillo zituzten adituek dastatzeko, lehen aldia izateko harritzeko moduko kopurua, eta hurrengo edizioei begira lehiaketa honi ere behar besteko arreta eskaini behar zaiola garbi dute arduradunek, araudia



Maria Isabel Zumalakarregik irabazi zuen errezil sagar txapelketan 1. saria.

zehaztuz eta partaideei moldeak aurretik banatuz. Sariak ere lau lehenengoentzat jarriko dituzte.

Soinujoleen Munduko Kopa

Urriaren 25tik 30era izan zen soinua jotzen Oroitz Maiz Jugoslavian, "Coupe Mondiale 2000" txapelketan. Lehen faseko kanporaketa gaindituta, finalera pasa zen beste zazpi soinu-jolerekin batera, akordeoirako obra orijinal bat eta aukera libreko beste bat aurkeztuz. Alexandr Jurov deritzon errusiar batek irabazi zuen. Nazioarteko hirugarren lehiaketa zuen hau Oroitzek, eta azkenean zazpigarren postua lortu du.

Herri Irratiaren irratsaioa Gabiriari buruz

Azaroaren 11n Herri Irratiak zuzenean eskaini zuen Gabiriari buruzko ordu eta erdiko irratsaioa herritik bertatik, *Herriz herri* programan. Arau subsidiario berriak, etorkizun hurbila, industria, kultura, herritarren kezkak, e.a. izan zituzten mintzagai.

Herriaren urtemuga

Aste honetan bete da Gabiria herri independente izendatu zeneko 339. urtemuga. 1661eko azaroaren 22an jurisdikzio zibila eta kriminala zuen hiribildu edo "villa" titulua eman zitzaion herriari, Aleriako Alkatetza Nagusitik ateraz eta agintaritzaz bere gain hartuz. Hortik aurrera bere ordezkari propioa bidaltzen zuen Batzar Nagusietara.

Landeta Berriko Nekane Agirre egin zen arlo honetako sariaren jabe. Epaimahaikoak harrituta baina oso pozik azaldu ziren menbrilloen kalitateagatik. Tolosako Joxe Mari Gorrotxategi eta honen seme Iñaki gozogileak, Antton Olaizola nekazal injenieroa, Roberto Ruiz teknikaria eta Lontxo Ormazabal sukaldaria jardun ziren ebaulatzen.

Aurten Santiago Redondo herritarrari egin zaio omena, eta emozio handiz jaso zuen aipamen-plaka, baratze-egin-tzan eta fruta-arbolen zainketan egindako lan aipagarriaren adirazgarri bezala. Antolatzaileek eskerrik beroenak eman nahi dizkiete partehartzaile, epaimahaikide, laguntzaile, trikitilari, dantzari eta bisitari guztiei lerro hauen bitartez.

Aimar Maiz



Kultur astea

Azaroaren 21etik 24ra bitartean ari da burutzen aurtengo kultur astea. Egitaraua honako hau izan da:

Azaroaren 21ean, asteartea Julian Bereziartua sendagileak lehenengo hitzaldia eman zuen. Elikadura eta ba-

rruko gaitz orokorrak (bihotza, gibela, pankrea...) gaia-
ren inguruan.

Azaroaren 22an, asteazkenean, Jakoba Errekondo izan zen eta Landareak izan zuen gaia.

Azaroaren 23an, ostegunean Julian Bereziartua eta bigarren egun honetako gaia elikadura eta hezur eta giharretako gaitzak (osteoporo-
sis, artrosis, erreuma, artiritis...) izan zuen.

Iñaki Ugalde

Gaztaina jana

Asteari amaiera ona emateko berriaz, ostilarean, hilak 24, gaztaina jana izango da herriko Olatuan, iluntzeko 20.30etan. Gaztainaren aurretik arrain zopa eta oilaskoa izango dira.

Ekitaldi ugari Gabon atarian

● **Abenduak 1, ostirala:** Guraso Elkartek antolatuturik, 'Gabonak eta jostailuak' hitzaldia izango da liburategian, 19:00etan, Txatxilipurdiko kultur elkarteko kidearen eskutik.

● **Abenduak 6, asteazkena:** San Nikolas eguna. Goizeko 9etan, Aitzuri herri eskolako haurren irteera.

● **Abenduak 13, asteazkena:** 'La Araucana' ONGari buruzko hitzaldia eta diaporama Kultur etxean, 20:00etan. Hizlariak: Jose Uranga misiolaria eta Jose Luis Alustiza. Udalak emandako 300.000 pezetako dirulaguntza zertan erabili den azalduko da.

● **Abenduak 14, osteguna:** Giron politikoa hobetu eta herri-gintza gaiari buruzko hitzaldia, Patxi Meabe eta Juan Felix Garciaren eskutik. Kultur etxean, 20:00etan.

● **Abenduak 18, astelehena:** Uholdeen defentsarako Olaran eta Oria ibaietan egin behar diren obretako proiektuaren aurkezpena, saneamendulanak barne. Udaletxean, 19:00etan. Hizlaria, Jose Agirrezabalaga, Portu, kanal eta bide injinerua.

Jubilatu elkarteak

Jubilatu elkarteak azaroan zehar ekitaldi ugari antolatu ditu. Azaroaren 20tik 25era hainbat joko ari dira jokatzen, partxisa, toka, musa, e.a. Joko hauetako txapeldunek beren sariak datorren azaroaren 30ean, jasoko dituzte. Azaroaren 30eko hitzaldian landuko den gaia 'Komunikazioa nola hobetu eta gizarte erlazioak' izango da. Ondoren, hitzaldia entzun, sariak banatu eta bukatzeko txokolate jatea izango da.

Santo Tomas eguna
Jubilatu elkarteak Santo Tomas eguna ospatuko dute abenduaren 21ean. Gabon saskia zozketatuko dute bazkideen artean eta jubilatuhelduenei aginaldoa banatuko zaie. 17:00etan izango da txistor jatea.

Igandeetako bideo emanaldiak

Kultur etxean, 17:00etan.
Abenduak 3: O.Z.eko aztia.
Abenduak 17: Tarzan.

Aitzgorri futbol taldeen partidak

Infantilak: abenduak 3, Aitzgorri-Antiguoko K.E.; abenduak 10, Elgoibar-Aitzgorri; abenduak 17, Aldape-tarrak-Aitzgorri.

Kadeteak: abenduak 3, Aitzgorri-Ilintxa; abenduak 10, Urola 'B'-Aitzgorri; abenduak 17, Aitzgorri-Antzuola.

Eduarne Albizu



Sanmartinetan jendetza handia

San Martin astean, ekintza ugari izan genituen. Azaroaren 6an udaletxean burutu zen hitzaldian, 'baserriaren eskualdatze edota oinordekotzari buruz Gipuzkoan indarrean jarri berri den lege berriari buruz informazio ugari jaso ahal izan zen. Bertara etorri ziren Ibai Lertxundi eta Iñaki Mendia abokatuek orainarte usarioz egiten zen ohitura, baserria banatu gabe oinordekoari uztea, lege baten bidez oinarritua izan dela adierazi zuen.

Ardo eta gazta dastaketak: Herritar ugari bildu zen. Gazta dastaketa Txarape elkartearen egin zen azken orduan jende askok eman zuelako izena. Ardo dastaketa eta afaria Ameiti elkartearen egin ziren. Gazta dastaketan 33 pertsonen parte hartu zuten eta ardoarenean 48k.

Profesionalen pilota partidak: Azaroaren 10ean profesionalen arteko pilota partidara herritar ugari bildu zen. Lehen partida, Goñi I-Elkoro, Lau t'erdiko txapelketakoa, ez zen hain interesgarria suertatu Elkoro motel samar ibili baitzen. Bigarren partida aldiz, Titin III-Zezeaga Etxaniz-Lasa, ikusgarria izan zen, eta sekulako giroa sortu zen pilotalekuan. Hurrengo egunean, herritarren arteko pilota partidetan ere giro bikaina izan zen.

Gazta txapelketa: 19 gazta aurkeztu ziren. Zeraingo Maria Angeles Iñurrategi izan zen irabazlea. 2. saria, Felix Etxezarreta izan zen eta 3.a Zeraingo Jabier Muñoz.

Gainerako lehiaketetan hauek izan ziren irabazleak: **Ardietan**, M. Paz Oiarbide; **bildotsetan**, Jose Migel Azurmendi; **pirenaika behietan**, Santiago Katarain; **behi mestizoetan**, Pedro Asurmendi; **behi suizatan**, Imanol Ruiz de Ego; **zezenetan**, Inazio Katarain; **zaldietan**, Ibai Urbistondo; **etxe behorretan**, Lourdes Arrieta eta **mendi behorretan**, Doroteo Otaegi.

Udaletxe azpian herriko eta inguruko artisauek aritu ziren, eta bi plazatan karpa handiak jarri ziren eguraldi txarrari aurre egin eta postuak txukunago kokatzeko.

Kultur etxean, pintura eta tailaketa ikastaroan ibilatako herritarrek erakusketa dotorea jarri zuten eta pilotalekuko 2. solairuan Marixular ehungintza tailerrean ere, ehungintza erakusketa egin zen.

Errealeko jokalariaren aita ormaiztegiarra da eta ama zegamarra

Mikel Antia: "Futboleant, orokorrean, esperientzia onak izan ditut"

Mikel Antia Donostian jaioa bada ere, bere aita ormaiztegiarra da eta ama zegamarra. 27 urteko atzelaria duela 3 urte iritsi zen Errealera Espainiako hainbat taldetan jokatu ondoren. Aurten Clementek taldetik baztertua eduki bazuen ere, Alonsorekin zerbait aldatuko delakoan dago Antia.

- Zein egoeratan bizi zara entrenatzailearen aldetarekin?
- Clementerekin taldetik kanpora nengoen eta ez neukan jokatzeko aukerarik. Niretzako ate txiki bat ireki da entrenatzaile berriarekin. Ez naiz gai niretzat entrenatzaile bat edo bestea hobea den esateko, baina garbi dago entrenatzeko modua aldatu egin da. Dena den, denborak esango du nola bukatzen den dena.



- Jokalariak nola bizitzen du ez duela jokatu jakin eta egunero entrenatu behar hori?
- Zaila da. Badakizu nahiz eta lana ondo egin ez duzula aukerarik. Clementek garbi utzi zidan dena denboraldi hasieran. Hori jakinda ere ilusioarekin entrenatzen jarraitu nuen eta orain Periko etorri denean zer gertatzen den ikusi behar.
- Hori dena jakinda zergatik jarraitu zenuen Errealean?
- Hemengoa naiz eta nire ilu-

sioa beti Errealean jokatzeko izan da. Ekainerarte kontratua dut eta hori bukatu nahi dut. Talde aldatzeko aukeraren bat izan nuen baina oso serioa ere ez zen izan eta nahiago izan nuen bertan geratzea.

- Errealean etorri zinenen zer espero zenuen bertan aurkitzea? Nola baloratzen duzu bertan bizi duzun etapa hau?
- Niretzako oso etapa ona da. Gustatuko litzaide gehiago jokatzeko. Urte bat nahiko

geldi daramat, baina orokorrean ni pozik nago. Gainera etxean nago eta hori niretzat garrantzitsua da. Asko gustatuko litzaide bertan jarraitzea baina ikusiko dugu zer gertatzen den.

- Dena den Errealean iritsi aurretik luzea izan da zure futbolari ibilbidea.

- Valentzian hasi nintzen jokatzeko, 13 urterekin Madrile-ra joan eta 20 urterarte bertan egon nintzen. Valentzia eta Madril nire aitaren lanagatik egon nintzen. Real Madril futbolari bezala aurrea jarraitzeko aukerarik ez nuen ikusten eta Vigora joan nintzen. Han ere gutxi jokatu nuen eta urte bete egin ondoren Valladolidera joan nintzen. Han, berriz, bi urte oso onak jokatu nituen. 97an Errealak deitu zidan eta oso pozgarria izan zen hori.

- Zure gurasoak goierritarak izanda, Goierriker zer ekartzen dizu burura?



Olatz Aranburu
Alaitz Zubizarreta

- BERRABILKETA
- DRENAJE LINFATIKOA
- OSTEOPATIA
- ARNAS APARATUKO ARAZOAK
- MASAIK
- ETXEZ-ETXEKO TRATAMENDUAK

Tel: 943 88 19 64 / 607 73 82 78
Santa Maria, 16
20240 Ordizia (Gipuzkoa)

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN



Nafarroa
Etorbidea, 9

943 88 94 82

BEASAIN

Autowag, s.a.



943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

- Bai, nire aita Ormaiztegi-koa da eta ama Zegamakoa. Nik ere badut goierritar zati hori baina gutxi agertzen naiz bertara. Orain, batez ere osaba-izeba eta lehengusuak bertan izatea da Goierriarekin dudana lotura.

- Futbolari bezala edo futbolaz gain zein oroitzapen on dituzu bizitzan?

- Futbolari bezala uste dut Errealak fitxatu ninduenekoa izan dela pozik handiena. Bizitzan, berriz, kanpoan bizi izan garenez, batez ere oporetan hona etortzea pozgarria izaten zen. Gabonetan eta udan etortzeak ilusio handia egiten zidan.

- Kanpoan bizi izan arren euskarari eutsi diozu, ez zen oso erraza izango.

- Ez dut oso euskara maila ona baina beti saiatu gara mantentzen. Gurasoak beti saiatzen ziren etxean euskaraz egiten eta erraza ez izan arren garrantzitsua da hizkuntza ez galtzea.

- Nola ikusten duzu zure etorkizuna epe luzeagoan? Jakin dugunez, entrenatzaile titulua ere ari zara ateratzen, futbol munduan jarraitzeko asmoa al duzu?

- Urte bat falta zait entrena-tzaile titulua ateratzeko. Niri

futbola asko gustatzen zait eta hori irteera bat da. Baina hau oso luzea da eta ikusiko dugu etorkizunak zer ekar-tzen duen.

- Zure kirol bizitza ikusita, hainbat talde ezberdin, orain jokatu gabe... Mereziko du baina dena ez da hain ederra izango ezta?

- Nik hori garbi dut, futbole-an batzuetan gauzak oso ondo joaten dira eta beste batzuetan oso gaizki. Baina orokorrean esperientzia onak izan ditut eta berriro egingo nuke egin dudana guztia.

Dena den apustu handia da futbolarena. Askok hasten dira eta gutxi igotzen dira gora. Futbolariok astia ere izaten dugu eta nik uste dut garrantzitsua dela ikasketekin jarraitzea.

- Zer behar da gora igotzeko: kalitatea edo zortea?

- Kalitatea, zortea... dena behar da. Oso garrantzitsua da behar den lekuan behar den unean egotea. Baina, dena den, garrantzitsuena lan asko egitea da, eta ez futboleak bakarrik, bizitzan ere bai.

Igor Sarriegi - M. A.

Motzean

- Ormaiztegi ala Zegama?
- Uff... Ormaiztegi eta Zegama.

- Madril ala Donostia?
- Donostia.

- Bien artean zer ezberdintasun dago?
- Madril estresa da, Donostia lasaitasuna.

- Ikusi duzun futbolariarik onena?

- Niri beti Van Basten gustatu izan zait.

- Eta markatu duzun zailena?

- Agian Raul izango zen.

- Entrenatzaile bat:

- Rafa Benitez.

- Futbol zelai bat:

- La Bombonera asko gustatu zitzaidan.

- Futbolaz gain kirol bat:

- Saskibaloia.

- Zein izan da futbolean bizi izan duzun unerik onena?

- Nik uste dut, Errealak fitxatu ninduenekoa.

- Eta txarrena?

- Madrilen Aitor Zabaleta hil zutenekoa. Oso gogorra izan zen.

- Odolkiak sartzen al dira futbolariaren dietan?

- Ez, ez. Pena da baina ez.

- Amets bat?

- Lesiorik ez izatea.



OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

KICKERS

K. Nagusia, 25

88 19 44

ORDIZIA

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:
B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A

Aita Urdaneta ORDIZIA
943 88 72 76

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

943 887 221

610 020 041

BEASAIN

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

ZINEA

goieniz

GOIENIZ:

Abenduak 14, 'El cumplido' laburmetraia eta 'La ducha', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

'La comunidad', Ostirala 24: 22:15
Larunbata 25: 22:15
Igandea 26: 19:30 - 22:15
Astelehena 27: 19:30
'Shangai kid, del este...', Igandea 26: 16:45

'La ducha'

Zhang Yang (Txina, 1999)

Gizonezkoz bakarrik osatutako familia batean, seme zaharrenak bere auzoa utzi eta Shenzhen-era joatea erabakitako du, garapen ekonomiko handia den ingurura fortuna bila. Bitartean aita gurasoengandik jasotako negozioari, bainu-etxe zaharrari, eusten saiatuko da, seme txiki inozente bezain zoriontsuaz arduratzearekin batera. Halako batean, zenbait gora-behera direla medio seme zaharrak bainu-etxera itzuli beharko du anaia zaintzera eta iragani aurre egitera.

bertsoak

ORDIZIA:

Abenduak 2, 22:00etan, "Bizkaiko kopla zaharrak" emanaldia izango da Xabier Amurizaren eskutik, Barrena Kultur etxean.

txotxongiloak

BEASAIN:

Azaroak 29, Israelgo Popik taldeak 'Sol' izeneko lana aurkeztuko du, 11:00etan eta 15:00etan, Usurbe Antzokian.

musika

BEASAIN:

Azaroak 30, Musiketan programaren barruan, Jorge Drexlerren kontzertua, Usurbe Antzokian.

Abenduak 15, Javier Muguruza, Usurbe antzokian, 22:15ean.

Abenduak 16, Garazi Larrañaga eta Maria Vegaren flauta eta piano kontzertua, 18:30ean, Igartza jauregian.

ORDIZIA:

Azaroak 25, Benito Lertxundi, 22:30ean, Majori Kiroldegian, Urruñako eta Ziburuko ikastolen alde.

Abenduak 17, 20:00etan Santa Ana Txiki eta Santa Ana abesbatzen eskutik Eguberri kontzertua elizan.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 25, Alaitz eta Maider, Itxune ondoan, 23:00etan.

antzerkia

ORDIZIA:

Abenduak 5, Txaloren 'El hombre que confundi a su mujer con un sombrero', Herri antzokian, 22:15ean.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 25, Dar-Dar antzerki taldearen 'Aliziaren mundu zoragarria', 17:00etan, plazan.

Azaroak 30, Panta Rhei, 13:00etan, plazan.

ZALDIBIA:

Abenduak 1, Beasaingo Errail antzerki taldearen 'Hutsalkeriak' antzezlan, 22:00etan, antzokian.

erakusketak

BEASAIN:

Abenduaren 10era arte, 'Errota eta energia berriagarriak' erakusketa, Igartza jauregian.



Suquia

SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK

ERAKUSKETA:
☎ 943 88 23 00
Kale Nagusia, 10
ORDIZIA

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



X LEIHOAK, ATE-
AK eta abar
X ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

Txotxongiloen jaialdia

Azaroaren bukaeran, Ordizian, hiru txotxongilo jaialdi izango dira.

- **Azaroak 28, asteartea:** Herri Antzokian, goizeko 11etan eta arratsaldeko 6etan, Mexikoko 'Teatro El Cajon' taldeak, 'La risa extraviada' lana eskainiko du.
- **Azaroak 29, asteazkena:** Herri Antzokian, goizeko 11etan, Murtziako 'Periferia' taldearen 'Pingüin' lana.
- **Azaroak 29, asteazkena:** Herri Antzokian, arratsaldeko 6etan, Australiako 'R. Bradshaw' konpainiak 'Richard y su teatro de sombras' lana aurkeztuko du.

Azaroaren 30era arte, Belokiren peñak aurkeztutako I. Argazki lehiaketaren erakusketa, Antzizar kiroldegian.

Azaroaren 26ra arte, Asmuberen 10. urteurrenean antolatutako tailerren eta ikastaroen lanen erakusketa, Usurbe Antzokian.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Azaroak 25-26: Laurnaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

Abenduak 2-3: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 88 05 87.

Abenduak 9-10: Arriola
(Plaza Nagusia - Ordizia). 943 88 06 28.

Abenduak 16-17: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Zinema dantzan Ordizian

Zinearen inguruko solasaldiak izango dira Ordizian egunotan, Barrena Kultur etxean izango dira, iluntzeko 8etan. Azkenko egunean, kontzertua ere izango da.

- **Azaroak 24, ostirala:** King Creole filma botako da. Filmaren amaieran solasaldia izango da.
- **Azaroak 29, asteazkena:** American Garffiti filma eskainiko da eta jarraian solasaldia izango da.
- **Abenduak 1, ostirala:** Kansas City filma botako da eta solasaldia izango da ondoren. Egun honetako saioa amaitzeko, 'Sin red' taldearen kontzertua izango da.

Aaroan, Diskoaren historia erakusketa Zinema tabernan. Sorreratik gaur egunerrate. Garaiko materiala ikusgai.

ORDIZIA:

Azaroaren 26ra arte, Martina Dasnoy artistaren pintura erakusketa, Barrenan.

Abenduaren 1etik 24ra, Barrenan, Christianne Giraud artistaren eskultura erakusketa.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 26, Aldaon.

Abenduak 3, Turturre.

Abenduak 10, Aranzamendi.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 26, Ganbo.

Abenduak 3, Finalistaren eguna.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



HORTZ KLINIKA

Silvia Miras Casasayas

Odontologoa. 649 koleg.

Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.

☎ 943 88 92 87 BEASAIN

«KASTE» AKADEMIA

- Eskola laguntza maila eta arlo guztiak
- Unibertsitate-maila, zikloak
- Banakako laguntza hezkuntzako profesionalek eskainia

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN



Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak

Etxebizitzak

salgai

➔ Zegaman, San Bartolomen, etxea salgai. 943801565-943801903.

➔ Movil-home salgai, Jaizkibelgo kanpinean kokatua. 3 x 8. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainua (guztiz hornitua). Abantze finkoa dauka. 943882111.

➔ Lazkaon pisua salgai. 90m²-koa. 649035311.

➔ Zegaman etxebizitza salgai, bodegarekin. 943888113

errentan

➔ Urbasa ondoan etxea alokatzen da asteburu edo zubietarako. Handia eta guztiz hornitua. 948539381.

Lokalak

salgai

➔ Lokala sailgai. Prezio interesgarria. 610382961.

Negozioak

traspasatu

➔ Ordizian taberna traspasatzen da. Erdigunean dago. Berritua. 943882883.

Animaliak

opari

➔ Artzai txakurkumeak oparitzen dira. 636241793 - 699460975. Sandra.

➔ Katakume siamesak oparitzen dira. 943885349 (Dolox).

➔ 10 hilabete dituen pastor aleman arrazako txakurra oparitzen dut. Josune. 943806048.

salgai

➔ Cocker eta boxer arrazako txakurkumeak salgai daude. Pedegreearekin. 696057346.

Bestelakoak

salgai

➔ Arrue markako bikientzako silla salgai. Fundak eta zakuak opari. 25.000 pezeta. 943887474.

➔ Pertsona ezinduak mugitzeko garabia edo grua salgai. 943886834.

➔ Karabana salgai, 4 plazakoa, abantze berriarekin eta barrua dena ekipatua. Prezio ona. 943651671. Gaeuz deitu.

➔ Unitekno markako vaporettoa salgai, bere plantxa eta osagarri guztiekin. Erabili ga-bea, beraz, egoera oso onean. Prezioa, 65.000 pezeta. 943653239.

➔ Gitarra anplifikadorearen 'Soutek MIG 100' kabezala salgai. Prezio onean. 943886534. Gaueko 9ak aurretik deitu.

➔ Kawai pianoa salgai. PN 100. 943161156.

➔ Sutarako egur lehorra salgai. 2 metro-tan moztuta. 943723504.

➔ Oso gutxi erabilitako pianoa salgai: sakonera 65 zm; zabale-
ra 147 eta altueran 95 zm. 943882467.

➔ Sua pizteko egurra, txikitua, salgai, zakuetan. Etxeetara eramaten da. Bulego ordutegian deitu. 943882695.

➔ Merkantzi garraiorako tarjeta salgai. 943180324.

erosi

➔ Autoarentzako gurdia eta espeleoko eskalak erosiko nituzke. 656415678. Erramun.

➔ Kanpin denda handia erosiko nuke. Berdin da zaharra izatea. 943723504.

Ibilgailuak

salgai

➔ Ford Fiesta, diesel, SS-AV, salgai. 87.000 km. Egoera onean. 21:00etatik aurrera deitu. 943027697.

➔ Cady motor gorria salgai. Parabrisa, aluminiozko llantak eta aurrealde saskiduna. 626610384.

➔ Aprilia sonic 50 motorra salgai. 2 urtekoa. Hebo tupo eskapeduna. 170.000 peze-
ta (negoziagarriak). 656745299.

➔ Peugeot 205 ko-
txea salgai. SS-X. Beti garagean egondakoa. 943888795.

➔ Seat Ibiza TD salgai. SS-AT matrikula-
duna. 686261210.

Lana

eskaerak

➔ Mutil bat behar da igeltseritza edo enko-fratu lanerako. 943887361.

➔ Neska bat behar da goizez etxeko lanak egin eta haurra ikastolara eramateko. 943888796. 19:00etatik aurrera deitu.

➔ Neska euskalduna behar da tabernan zerbitzari lanak egiteko. 679579621.

➔ Pertsona euskalduna behar da adineko emakume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943889883.

➔ Haurrak gustuko badituzu eta beraiekin ondo pasatu nahi baduzu, animatu eta izan zaitez Kimuak-eko begiralea. 657702808. Idoia.

➔ Mutil bat behar da igeltseritza lanerako. 943889576.

➔ Ileapaintzaile bat behar da, Arrasate inguruan. Esperientzia-
duna. Epe luzerako lana. Lan orduetan 943792259. Gauetan, 943770056.

➔ Sukaldari bat behar da asteburuetarako. 943886243.

eskaintzak

➔ Neska euskalduna eskaintzen da goizez adineko pertsonak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943161278.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 659964794.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Baita etxeko lanak egiteko ere. 649011262 - 943882209. Idoia.

Ormaiztegiko eskolak

Ormaiztegiko irakaskuntzaz hitz egitea, harri-garria badirudi ere, ia mende oso bateko historiari hitz egitea da. Hain zuzen, Narciso Zangitu, mende haserako lehen urteetan hasi baitzen Madrilera joan eta gaur egun eskola zaharrak bezala ezagutzen ditugunak eraikitzeko lehen gestioak egiten. Berak aurrera eramandako gestioei esker 1914. urtean eraiki zen gure herriko lehen eskola hura, dirulaguntzez eraikitako estatuko lehenengo eskola izan zela azpimarragarria da. 1971. urteak Ormaiztegiko irakaskuntzari etapa berri baten hasera ekarri zion, Urretxuko Lourdesko Amaren laguntzarekin, herriko Ikastola abian jarri zeneko garaia izan zen. 1980. urte ezkerotik gure herriko eskolak San Andres Herri Eskola izendapena hartu zuen, beraz aurtengoa bere hogeigarren urtemuga aurkitzen gara. Hasierako urteak laburbildu ditugu atal honetan. Ormaiztegiko eskolen inguruan liburuxka kale-ratu dute Ormaiztegin, eta bertan aurki dezakezue informazio zabal eta zehatzagoa.

Lehenengo eskolen eraikuntza

Gure herriko lehen eskola hau da, eskola zaharrak bezala ezagutzen duguna, egun kultur etxea bezala erabiltzen

den eraikuntza hau, Narciso Zangituk mende haseran Madrilén aurrera eramane zituen gestioei esker eraikia izan zen. Dirulaguntzez eraikitako estatu lehenengo eskola izan zen, "Subvencionada por el Ministerio de Instrucción Pública y Bellas Artes por R.D. de 15 de Agosto de 1913". Eskola eraikitzeke lurren erosketa 1914. urtean egin zen. Eskolak eraikitzeke proiektua Jose Angel Hernandez de Casadevante arkitektoak burutu zuen. Eraikuntza lanak 1914. urteko abenduaren 31rako amaitu ziren, lanak aurrera eramateke guztira 44.437,48 dirutza behar izan zen. Kopuru horretatik %50 Ministeritzaren dirulaguntza izan zen.

Eskola hura auzonalean eraikia izan zen, argazkian ditugu eraikuntza lan haiek aurrera eramane aritu zen langile taldea.

Eraikuntza lanak pixkanaka-pixkanaka egin ziren, garaiko teknikak aurkezte zituen mugei aurre eginez eta batez ere langileen laneskua-ren nagusitasunarekin. Tamaina handiko eskola eraiki zuten, eraikin nagusia hiru altueratakoa da eta eraikuntzaren erdian kokatzen da, sarrera nagusia eraikin honen fatxada nagusian dago. Eraikin nagusiak, albo bakoitzean laukizuzen itxurako eraikin txikiago bana ditu eran-



Auzonalean egin zen Ormaiztegiko eskola, 1914an hasita.

tsiak.

Eraikuntza lanak amaitu ostean eskolen inauguraketa ekitaldiak ospatu ziren. Eskoletaraino herria zeharkatuz prozesioa egin zen, bertan herritar askok parte hartu zuten garaiko agintariei bidea irekiz. Ibilbidea txistulari eta musikarien bandaren musika doinuaz alaiturik egin zuten, dantzarien saioa eta etxafuegoen jaurtiketa ere burutu zituzten.

Eskolako maisu-maistra eta ikasleak

Eskola inauguratu ondoren, herriko neska-mutilek lehen urteetako heziketa bertan jasotzen zuten. Urte batzuetan, ikasketak herrian burutu ondoren eta gurasoek horrela erabakiz gero, neska-mutil batzuek beraien heziketa maila areagotu zezaten beste herriren batera bidaliak izaten ziren, beste batzuek aldiz lanean hasteko erabakia hartzen zuten.

Garai hartan gure herriko haurren heziketaz arduratu-

rik maisu-maistra zereginean aritu ziren gizon-emakumeak ugari izan ziren. Maisu-maistra horien artean baditugu herritarrek ere.

Maisuen artean, herrira ezkondu eta orain urte batzuek arte Ormaiztegin bizi izan zena On Juan Muguruza Etxeberria zena izan zen. 1930. urtean, On Juan Muguruza, Narciso Zangitu eta Manuela Oiarzabalen alaba zen Ascension Zangiturekin ezkondu zen. On Juan Muguruza 1903. urteko maiatzaren 5ean Itsasondon jaio zen, zazpi urte inguru zituela Donostiara joan zen bizitzera. Anaia bat eta bi arreba zituen eta guztiek maisu-maistra ikasketak egin zituzten.

Baina garai hartako maisuan artean ere baditugu herriaren aritu ziren maistrak ere, beraien artean Josefa Ramona Lasa Mujika eta Arantxa Muguruza Zangitu aipatuko ditugu.

Aitziber Murua



ITSASO
apaindegia

Jai zoriontsuak denoi!

San Andres, 31 ☎ 943 88 06 24
ORMAIZTEGI

ILEAPAINDEGIA

- ✖ Azken teknika eta estiloak
- ✖ Tratamendu bereziak: ile erorketa, eta abar.

ESTETIKA

- ✖ Depilazioak, elektrikoa
- ✖ Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- ✖ Masaiaik eta solariuma

Baita ere hilean behin sendagilea, M. Esteban (6.180): gizontasuna, barizeak, meroterapia, e. a. *Kontsulta ezazu*



Ormaiztegiarrak mende hasieran

Sta. Paz Monforte bilbotar maistrarekin herriko neska ikasle taldea. Mende haserako lehen hamarkadeetako argazkia da.

Goitik hasi eta lehenengo ilaran, ezkerretik eskubira: Kasilda Arzelus, Anastasia Antia, Maria Arizmendi, Karmen Lizarazu, Juana Irazusta, Maria Azurmendi, Isabel Zabala, Maria Luisa Intxausti, Mercedes Irizar, Maria Mendizabal, Margarita Lizarazu eta Maria Jesus Borde.

Bigarren ilaran: Luzia Mujika, Dolores Antia, Eulogia Aranburu, Blanca Irizar, Pilar Azurmendi, Estefania Mujika, Ines Arizmendi, Francisca Lasa, Sta. Paz maestra, Carmen Lasa, Miren Irizar, Manuela Oiarzabal, Jesusa Oiarbide, Remedios Iurrita, Maritxu Lizarazu, Juanita Lasa eta Josefa Zufiaurre.

Hirugarren ilaran: Juanita Mendizabal, Jesusa Eskisabel, Trini Intxausti, Maxima Gaztañaga, Petra Porres, Maritxu Zeberio, Pilar Goia, Maria Lasa, Maria Luisa Lezama, Josefa Iurrita, Maritxu Esnaola, Miren Zufiaurre, Paulina Mujika, Rosario Baztarrika, Asintxi Etxezarreta, Kontxa Intxausti, Hilaria Aranburu eta Amparo Maritxalar.

Laugarren ilaran: Matilde Irizar, Maria Luisa Azurmendi, Miren Ezkurdia, Agustina Goikoetxea, Maria Zufiaurre, Katalina Intxausti, Maria Agirrebengoa, Jesusa (sastizar), Joxepa Albisu, Pilar Murua, Carmen Porres, Juanita Irizar, Miren Intxausti, Zeberio eta Francisca Gurrutxaga.

ARANA
TABERNA
Jai zoriontsuak opa dizkizue!
☎ 943 16 02 05 **ORMAIZTEGI**

MURUA harategia

- Bertako haragia
- Odolki eta txorizoak

Maiora plaza
ORMAIZTEGI ☎ 943 88 27 64

SAGARNA
ARRANDEGIA

☎ 943 88 68 73 (denda) ☎ 943 16 02 01 (etxea)
Zumalakarregi, 4 **ORMAIZTEGI**

Z·M
Gipuzkoako Foru Aldundia
ZUMALAKARREGI MUSEOA
Iriarte-Erdikoa Baserria
Tel. 943 88 99 00
Faxa 943 88 01 38
ORMAIZTEGI
e-mail: mzumalakarregi@kultura.gipuzkoa.net
webgunia: <http://www.gipuzkoa.net/kultura/museos/zm/01zme.htm>
HISTORIA on line museoaren aldizkari elektronikoa:
<http://www.adegi.es/ks/museozumalakarregi>

ORMAIZTEGIKO JAIK 2000

Alkatearen agurra
Gainean ditugun San Andres jai hauetan adin orotako herritar guztioi eta kanpotik etorriko zareten guztiei prestatu zaigun festa ekintzetan parte hartzeko nire gonbitea luzatzen dizuet.

Bestalde egun hauetan gure artean egoterik ezin izango dutenek izan bezate gure oroimena.

Festak ondo pasa!!!

ORMAIZTEGIKO UDALA



IRIZAR

GURE ESTRATEGIA:

BEZEROA EZAGUTU
ZERBITZATU ETA
BALIOA ERANTSI

GURE GILTZARRIAK:

KALITATEA
ZERBITZUA
KOSTUA
BERRIKUNTZA
SEGURTASUNA
ESPERIENTZIA KONPARTITUA



MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

Zumarragako bidea 8
ORMAIZTEGI

☎ 943 80 91 00

Faxa: 943 88 91 01



FELIPE PRINTZEA
SARIA ENPRESA
BIKAINTSUNARI
95 eta 96 urteetan:
- Diseinu Industrial
(1995)
- Kalitate Industrial
(1996)



URTEKO
AUTOBUSA
94 URTEAN
BRITAINIA
HANDIAN



URTEKO
AUTOBUSA
95 URTEAN
ESPAINIAN



ESKIA

Astun / Candanchu . . .33.000etik (irteera: 06-12)
Andorra52.000etik (irteera 05-12)
Cauterets32.900etik (irteera 05-12)
Autobusa joan/etorria, forfai + pentsio erdiko hotela barne

BIDAIK HEGAZKINEZ

Gran Canaria89.000etik
Tenerife81.500etik
Lanzarote88.500etik
Costa del Sol68.500etik
Mallorca39.900etik
Londres69.900etik
Praga47.900etik
Budapest69.500etik
Tunez70.400etik

BIDAIK AUTOBUSEZ

Avila42.600etik
Madril18.400etik
Paris28.500etik
Sevilla34.500etik
Lisboa26.900etik
Galizia21.500etik
Ruta de los conculadores40.300etik
Benidorm - Terra Mitica32.400etik

UROLA
bidaiak

K. Nagusia, 38
☎ 943 80 53 11
BEASAIN





belén

DEKORAZIOA

*Zure gabonetako
oparien denda*

☎ 943 16 22 87

Urdaneta Kalea, 24 - 25 **ORDIZIA**

